

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2026 / Martxoa / 366. zenbakia

www.oñati.eus

Egin diezaiogun harrera beroa KORRIKARI

Martxoaren 28an
iritsiko da Oñatira, goizaldean



ETXEBIZITZA PLANA

Hurrengo hiru urteetarako Ekintza Plana aurkeztu du udal gobernuak. Oñati 'Bizitegi Merkatuko Eremu Tentsionatu' izendatzea eskatu dio udalbatzak Eusko Jaurlaritzari

GHauzatu
ADIMEN GAITASUN HANDIAK OÑATI

GHauzatu ELKARTEA

Adimen gaitasun handiak dituzten haurren guraso talde batek sortu du Oñatin

PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK 2026/2027: EMAITZAK

Herritarrek eman dute epaia

Herritarren 1.011 boto baliodun jaso dira, eta 600.000 euroko aurrekontua agortu arteko zortzi proposamen bozkatuenak gauzatuko ditu Udalak 2026 eta 2027an zehar

PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK 2026-2027 prozesua iritsi da amaierara. Bozketa fasera heldu ziren 23 proposamenen artean hautatzeko aukera izan dute herritarrek eta, dagoeneko, badakigu zein izan diren aukeratutako inbertsio proposamenak.

1.011 BOTO BALIODUN

Azken fasea, bozketarena, urtarrilaren 12tik 30era egon zen zabalik, eta Oñatin erroldatutako 16 urtetik gorako herritarrek 23 proposamenen artean 7 hautatzeko aukera izan zuten, online edo esku-orrien bidez.

Guztira 1.052 herritarrek eman zuten botoa baina horietatik 41 (%4) baliogabetu egin ziren, arrazoi ezberdinengatik: erroldatu gabeko herritarrenak zirenak, birritan bozkatutakoak, daturik gabe zeudenak, edota 7 aukera markatu ez zituztenak –ezinbesteko baldintza zen bozketa fasera iritsitako 23 proposamenen artean 7 aukeratzea–.

Azkenik, jasotako bozka kopuruaren arabera 23 proposamenak zerrendatu ostean, aurrekontuaren mugaraino (600.000 €) sartu diren proposamenak izan dira hautatuak. Ondoko orrialdean ikus daiteke proposamen bakoitzak jasotako boto kopurua, eta zeintzuk sartu diren 600.000 euro arteko muga barruan.

EXEKUZIO EGUTEGIA

Hemendik aurrera, udaleko zerbitzu teknikoek proiektuen garapena eta exekuzio egutegia zehaztuko dituzte, 2026-2027 aldiari gauzatzeko. Proiektu bakoitzaren bilakaeraren berri emango du Udalak, herritarrek jarraipena egin ahal izan dezaten.

Udalak oso positiboki baloratu du prozesua, parte-hartze maila oso altua izan delako, eta konpromisoa berretsi du etorkizunean ere prozesua hobetzen jarraitzeko, parte-hartzea sustatzeko, eta herritarren ekarpenak udal kudeaketaren ardatz izaten jarraitzeko.



ANIK ZUBIZARRETA ARTURO
Udaleko Partaidetza eta Garapen
Komunitarioa batzordeko burua



"Oso pozik gaude parte-hartze maila oso altua izan delako"

Udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioa sailak balorazio oso positiboa egin du *Partaidetzazko Aurrekontuak 2026/2027* prozesuaren inguruan. "Oso pozik gaude, parte-hartze maila oso altua izan delako. Proposamenak egiteko fasean asko jaso genituen, ikusi zen herritarrek gogotsu zeudela proposamenak egiteko, eta bozketa fasean ere aurreko edizioan baino dextente bozka gehiago jaso ditugu (%25 gehiago), eta hori azpimarratzekoa da", adierazi du Anik Zubizarreta batzordeburuak.

Zubizarretak azpimarratu du Partaidetzazko Aurrekontuak tresna garrantzitsua direla udal kudeaketan eragiteko, eta urtez urte sendotzen ari den egitasmoa dela, parte hartze datuek erakusten duten modura. Uste dugu sistema mistoak (online eta esku-orrien aukera) parte-hartzea erraztea eta ahalik eta herritar gehienengana iristea ahalbidetzen duela. "Kalera irten garen egunetan konturatu gara herritarrek, oro har, ezagutzen dutela prozesua, badakitela zer den eta zertarako, eta hori inportantea da guretzat. Gero, bakoitzak erabakiko du parte hartu ala ez, baina, behintzat, ez badu parte hartzen ez dadila izan ez zaiolako informazioa iritsi eta ez dakielako zer den eta zertarako balio duen prozesu honek".

Beste puntu bat ere azpimarratu eta balioan jarri du Zubizarretak. "Ikusi dugu prozesu honetan parte hartu dutela eta iritzia eman dutela, agian beste era bateko prozesuetan –arrazoi ezberdinak tarteko– presente egoten ez diren herritar perfilak, eta horregatik ere uste dugu positiboa dela prozesu hau".

Partaidetzako zinegotziak eskerrak eman nahi dizkie herritarrei egindako ekarpenengatik eta erakutsitako konpromiso eta arduragatik. "Udalaren helburua da etorkizunean ere prozesua hobetzen jarraitzea, parte-hartzea zabaltzea eta herritarren ekarpenak udal kudeaketaren ardatz izaten jarraitzea". •

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHAGO
OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

HERRITARREK AUKERATUTAKO PROPOSAMENAK



ARBOLEDA PASEALEKUAN BIDEGURUTZEETAKO OINEZKOEN ARRAPALAK EGOKITZEA

- Bozkak: **552** (%54,5)
- Aurrekontua: **47.000 €**



ZAKARRONTZI GEHIAGO JARTZEA HERRIKO HAINBAT LEKUTAN

- Bozkak: **472** (%46,6)
- Aurrekontua: **10.000 €**



BIDAURRETAKO BERDEGUNEA AISIALDIRAKO GUNE BIHURTZEA

- Bozkak: **444** (%43,9)
- Aurrekontua: **20.000 €**



PLAZAKO KOMUN PUBLIKOAK BERRITZEA

- Bozkak: **420** (%41,5)
- Aurrekontua: **150.000 €**



HERRIGUNEKO SEI ITURRI HISTORIKO ERABERRITZEA

- Bozkak: **418** (%41,3)
- Aurrekontua: **108.000 €**



PLAZAKO ADOKINAK KONPONTZEA, EURI UREN SARETEK ERAGINDAKO KOSKAK EZABATZEKO

- Bozkak: **400** (%39,5)
- Aurrekontua: **225.000 €**



BIDAURRETAKO ZUZENGUNEAN ATERPEA JARTZEA

- Bozkak: **324** (%32,04)
- Aurrekontua: **20.000 €**



BANKUAK JARTZEA EDO EGOKITZEA HERRIKO HAINBAT LEKUTAN

- Bozkak: **315** (%31,1)
- Aurrekontua: **15.000 €**

OHARRA: Ondoko taulan ikus daitekeen moduan, kanpoan geratu diren proposamenetako batzuk aurrera egin duten beste batzuk baino boto gehiago jaso dituzte, baina gainditu egiten zuten 600.000 euroko aurrekontu muga, eta horregatik geratu dira kanpoan. Aurrekontua agortu arteko boto gehien jaso duten proposamenak izan dira aukeratuak.

KANPOAN GERATU DIREN PROIEKTUEN BOTO KOPURUA

- Herrigunean zehar zuhaitzak landatzea
Bozkak: 363 (%35,9)
Aurrekontua: 150.000€
- San Anton kalearen oinezko lotura hobetzea
Maiatzak 1 Plazarekin eta Kale Zaharrarekin
Bozkak: 354 (%35)
Aurrekontua: 60.000€
- Herriko hainbat autobus geltokitan autobusaren eta espaloiairen arteko tartea irisgarriago egitea
Bozkak: 339 (%33,5)
Aurrekontua: 225.000€
- Hilerri inguruan komun publikoa jartzea
Bozkak: 315 (%31,1)
- Atez ateko hondakinak jasotzeko zintzilikarioak babesteko panelak jartzea
Bozkak: 291 (%28,7)
- Errekaren kontra, parrokiatik postetxerainoko ibilbideko irisgarritasuna hobetzea
Bozkak: 279 (%27,5)
- Kiroldegiaren aurrealdeko jolas parkea berritzea
Bozkak: 271 (%26,8)
- Kiroldegiko gimnasioko kanpo-patioa entrenamendu funtzionalerako prestatzea
Bozkak: 260 (%25,7)
- Bizikleta aparkalekuak jartzea herrian zehar
Bozkak: 249 (%24,6)
- Bizikletak garbitu eta konpontzeko gunea berritzea eta bigarren bat jartzea
Bozkak: 230 (%22,7)
- Errekalde auzoan komun publikoa jartzea
Bozkak: 201 (%19,8)
- Hilerri barruko irisgarritasuna hobetzea
Bozkak: 158 (%15,6)
- Kurtzekuan jolas parkea egitea
Bozkak: 140 (%13,8)
- Santa Anako patineteen aparkalekua estaltzea
Bozkak: 138 (%13,6)
- Parrilla gunea Ibarako aisialdi eremuan
Bozkak: 137 (%13,5)



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

Anbulatorioko aparkalekuan TAO sistema ezarri du Udalak

> Urdinez margotutako 23 aparkaleku txandakakoak izango dira ambulatorioko ordutegian (8:00-17:00) eta bi orduz dohainik aparkatu ahal izango da.

> Gainerako 26 aparkalekuak TAO barikoak izango dira, orain arte bezala.

Martxoarekin batera TAO/OTA sistema dago indarrean ambulatorioko aparkalekuan. Zehatzago esanda, urdinez margotu diren 23 aparkalekuetan aplikatuko da TAO sistema osasun zentroaren ordutegian, hau da, astelehenetik ostiralera, goizeko 8:00etatik arratsaldeko 17:00ak arte. Ordutegi horren barruan bi orduz, gehienez, dohainik aparkatzeko aukera egongo da, baina denbora hori igaro ostean kotxea lekuz aldatu beharko da, beste erabiltzaile batzuei lekua uzteko. Ambulatorioko ordutegitik kanpora (arratsaldeko 17:00etatik aurrera, eta asteburuetan) denbora mugarik gabe aparkatu ahal izango da urdinez margotutako aparkalekuetan.

"Neurri honen helburua da errotazioa edo txandakatzea bermatzea, batez ere ambulatorka etorri behar duten herritarrei begira", azaldu du Xabier Igartua zinegotziak. "Bestela, aparkalekua beteta egon ohi da goizetik arratsaldera arte, inguruan lan egiten duten herritarren kotxeekin, eta kontutan hartuta kiroldegi atzealdean aparkaleku plaza gehiago egokitu ditugula, uste dugu une egokia dela TAO sistema ezartzeko plaza kopuru jakin batean, osasun zentroko erabiltzaileen beharrei erantzuteko".

Ambulatorioko parkingeko gainerako aparkalekuetan, zuri



Xabier Igartua zinegotzia, ambulatorko urdinez margotutako aparkalekuen ondoan, eta barrenean TAO makina berria

koloreko 26 plazetan, ez da TAO sistema aplikatuko eta, beraz, denbora muga barik aparkatu ahal izango da horietan, orain arte bezala.

ALDAKETA GEHIAGO TAO SISTEMAN



LURRAZPIKO PARKINAK Doako tartea 2 ordutik 3ra luzatu da

Kiroldegiko eta Kalegoienako lurrazpiko aparkalekuetan 2 ordutik 3 ordura igo da dohainik aparkatzeko denbora tartea. Hortik aurrera ohiko tarifak aplikatuko dira. "Lurrazpiko aparkalekuen erabilera sustatu nahi dugu, herrigunean zehar aparkaleku bila alferrikako joan-etorriak saihesteko", arrazoitu du Igartuak.



RAMON IRIZAR ETA MOTXON Doako tartea ordu letik 2ra luzatu da

Errementari plaza inguruko TAO guneetan –Ramon Irizarren 22 plaza eta Motxon kalean 26– doan aparkatzeko denbora ordubetetik bi ordura luzatu da. "Ordubeteko tartea motz geratu ohi da erosketak eta bestelako gestioak egiteko, eta, ondorioz, TAO gune hauek maiz hutsik egoten dira eta hori ekidin nahi dugu", arrazoitu du Igartuak.



DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK Ordubete gehiago

Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko-txartela dutenek ordubete gehiago aparkatu ahal izango dute herriko TAO gune guztietan, betiere txartela tiketaren ondoan bistan baldin badago



BIZIEDER

ALONAZ AZPIAN · OÑATI

Mendia txiki geratzeko lain, amestu!!

OÑATI
SAN MARTIN

ETXEBIZITZA LIBREAK ITUNDUTAKO PREZIOAN

48 etxebizitza libre eraikiko ditugu prezio itunduan.

- **Zer esan nahi du honek?** Obra berriko etxebizitza bat prezio merkeagoan erosi ahal izango duzula.
- **Zer konpromiso hartzen duzu?** Etxebizitza hau ohiko bezala erabiltzea.
- **Nire egoera pertsonala aldatuz gero, 10 urte baino lehen sal dezaket?** Bai, baina Oñatiko Udalak itundutako prezioan erosteko eskubidea izango du.
- **Eta 10 urte igaro ondoren saltzen badut?** Orduan, etxebizitza libreki eskeini ahal izango duzu eta nahi duzunari merkatuko prezioan saldu ahal izango diozu inolako mugarik gabe.
- **Baldintza bereziren bat bete behar al dut?** Ez, bat ere ez. Familia bat bazarete, etxebizitza horietako baten jabe izateko lehentasuna izango duzue.*

Interesa baduzu, deitu eta informatuko zaitugu.



Irudi birtual ez lotesleak



WWW.BIZIEDER.COM

SUSTATZEN DU:

KOMERTZIALIZAZIOA:



grupo eibar
inmobiliario

www.grupoeibar.com · 943 31 66 11
comercial@grupoeibar.com

italde

GRUPO INMOBILIARIO ITALDE

Ramón Irizar, nº2 Bajo, Oñati

943 782 707

E.: info@italde.com

www.italde.com

*Etxebizitzaren salmenta zuzenean egingo zaie bi pertsona edo gehiagoko familia-unitateei. Banakako eskubideak itxaron-zerrendan erregistratuko dira hilabeteko epean, etxebizitzak eskuragarri daudela egiaztatu arte.

Oñati Tentsio Handiko Etxebizitza Eremu izendatzea eskatu dio Udalak Jaurlaritzari

> Hiru urterako **Ekintza Plana** osatu du Udalak, etxebizitza merkatuan eragiteko asmoz. > **Martxoaren 10ean** (kultur etxean, 18:30) herritar guztiei zuzendutako bilera irekia egingo da, planaren berri emateko.



Izaro Elorza, alkatea, eta Iñigo Ruiz, Hirigintza batzordeburua, Etxebizitzako Ekintza Plana aurkezten

Oñatiko bizitegi-merkatuak etxebizitza parkeak, prezioek eta demografiak eragindako tentsioa du. Etxebizitza hutsen kopuru handiak eta gazteen emantzipatzeko zailtasunak arazoa handitzen dute.

Udalak, EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoz, erabaki du Eusko Jaurlaritzari eskatzea Oñati **Etxebizitza Eremu Tentsionatu** izendatzea. Otsailaren 26ko osoko bilkuran Jaurlaritzak izendapen hori onartzeko aurkeztu beharreko bi dokumentuak –'Diagnostikoa eta Justifikazio Txostena' eta 'Ekintza Plana'– onartu zituen udalbatzak.

Espainiako Kongresuak 2023an onartutako Etxebizitza Eskubi-

deari buruzko legearen arabera, hiru dira udalerrri bat Tentsio Handiko Bizitegi-Eremu izendatu ahal izateko baldintzak, eta horietako bat, salerosketa prezioei dagokiena, nabarmen gainditzen da Oñatin; izan ere, etxebizitzaren prezioak %36 egin du gora 2018-2023 epealdian, KPlaren igoera %19,4koa izan den bitartean, Etxebizitza Legeak ezartzen duen KPIa gehi 3 puntuko muga nabarmen gaindituz.

Udalak *Gislan* aholkularitza enpresaren laguntzarekin osatu duen diagnostikoak hainbat datu esanguratsu eman ditu: 2010etik etxebizitza parkea %9,2 hazi den arren, ez da nahikoa izan eskaera asetzeko –2025eko uztaillean 219 etxebizitza eskaera aktibo zeuden Oñatin–. Bestalde, gaur egun 696 etxebizitza daude hutsik Oñatin –inor errol-datu gabe–, eta horrek erakusten du erabilera-desoreka dagoela; hau da, eskaera aktiboa dagoen arren, etxebizitza kopuru esanguratsua ez dago merkatuan.

Oso kontutan hartzeko beste hainbat datu ere jarri ditu mahai gainean diagnostikoak: adibidez, bizikidetz-unitateak nabarmen hazi direla azken 15 urteetan (4.030etik 4.801era), eta etxebizitza bakoitzeko batz besteko pertsona kopurua 2,7tik 2,4ra jaitsi dela. Azpimarratzekoa da, era berean, Oñatiko etxebizitza parkeko eraikinen batz besteko adina 48,1 urtekoa dela, eta askok irisgarritasun arazoak dituztela.

HIRU URTEKO EKINTZA PLANA

Etxebizitzaren auziari adarretatik heltzeko asmoa adierazi zuen udal gobernuak agintaldi hasieran. Ildo horretan, 2024ko irailean bailara mailako diagnostikoa egiteari ekin zion EH Bilduk. "Ondoren, diagnostiko hori Oñatira lurreratu eta hainbat ekintza ere identifikatu genituen", azaldu du Izaro Elorzak. "Gero,

BIZITEGI EREMU TENTSIONATU IZENDATZEAREN ONDORIOAK

Tentsio handiko eremu izendapena 3 urterako izango da, eta egoera hori urtero luzatu ahal izango da, izendapena eragin duten baldintzek irausten duten bitartean. Eremu bat tentsio handiko gune izendatzeak honakoak dakar, besteak beste.

- **Kontratua amaitzen zaien errentarientzat.** Maizter eta errentariak kontratua 3 urtez, gehienez, luzatzeko aukera izango du, indarrean dagoen kontratuaren baldintza berberetan
- **Errentari berrientzat.** Alokairuaren prezioa aurreko kontratuaren errentara mugatzen da, urteko egunreatze-klausula bat ezarrita. Salbuespen gisa, errenta %10 igo daiteke hamar urtetik gorako alokairuetan, edo etxearen eraberritzearekin, energia eraginkortasunarekin edo irisgarritasunarekin lotutako hobekuntzak egiten badira.
- **Azken bost urteetan alokatuta egon ez diren etxebizitzak alokatzeko prezioa mugatu egingo da.** Prezioak ezingo du gainditu erreferentziazko prezioen indizeen arabera aplikagarria den gehieneko muga.
- **Alokatuko den etxearen jabea jabe handia bada -5 etxebizitza edo gehiago baditu-.** Errentak ezingo du gainditu prezioen indizeen sistemari jarraituz aplikatzeko da den gehieneko muga.

ETXEBIZITZAREKIN LOTUTAKO OÑATIKO DATUAK

- Egun **696** etxe huts daude Oñatin –inor erroldatu gabeko etxebizitzak–, eta horietatik **476** herrigunean daude.
- Oñatiko etxebizitza parkeko eraikinen batz besteko adina **48,1** urtekoa da. Askok irisgarritasun gabeziak dituzte.
- 2025eko uztailen oñatiarren 219 etxebizitza eskaera aktibo zeuden Etxebiden.
- Bizikidetza-unitateak nabarmen hazi dira (**4.030**etik **4.801**era 2009-2024 artean). Etxe bakoitzeko batz besteko pertsona kopurua jaitxi egin da (**2,7**tik **2,4**ra).

etorri da eremu tentsionatuen zerrendan sartzeko aukera, eta urrats hori ematea erabaki dugu, tresna espezifikoak aktibatze-ko aukera emango digulako, prezioen gorakadari eusteko eta alokairu eskuragarrien eskaintza zabaltzeko. Gune tentsionatu izendapenak bultzada emango dio 2024tik martxan geneukan prozesuari".

Etxebizitzaren gaia ez da udal eskumenekoa %100ean, baina legeak uzten dituen baliabideak eta neurriak abian jartzeko borondatea adierazi du alkateak, erakundeen arteko elkarlana

**2018-2023
epealdian
etxebizitzaren
salerosketa
prezioa %36,5
hazi zen Oñatin,
eta BPGa %19,4.
Aldea, beraz,
gune tentsionatu
izendatzeko
mugaren –KPIa +
3 puntu– gainera
dago nabarmen**

UDALAREN ETXEBIZITZAKO EKINTZA PLANA

Etxebizitza oinarritzko eskubide moduan ulertuta eta arazo poliedrikoa dela jakitun, lau ardatz nagusitan oinarritutako Ekintza Plana osatu du Udalak, hurrengo 3 urteetarako. Hona hemen planak jasotzen dituen egitasmoetako batzuk:

1. ALOKAIRU ESKURAGARRIA SUSTATZEA

- Kurtzekuan, udal jabetzako lursailean, babestutako 12 etxebizitzako promozioa bideratuko du Udalak.
- Kasablankan, Kurtiderixako gunean, pribatua den lursailaren promozioa sustatzeko aukera aztertuko da. Bertan 48 etxebizitza eraikitze-ko aukera dago.
- Etxebizitza hutsen jabe-eei zuzendutako komunikazio kanpaina egingo da, **Bizigune** edo **ASAP** bezalako programek eskaintzen dituzten berme fiskal eta administratiboen berri emateko.
- Hutsik dauden etxebizitzaren jabe-eei OHZ zergan (IBI) %100eko erre-ekargua –%150era arte igo daitekeena– aplikatzen jarraituko du Udalak, etxebizitza horiek mobilizatzeko helburuarekin.

2. ETXEBIZITZA PARKEAREN BIRGAITZEA

- Birgaitze eremuak identifikatu eta BIA planak (Birgaitze Integralerako Areak) eguneratuko dira irisgarritasuna hobetzeko.
- Hutsik dauden lokalak etxebizitza bihurtu ahal izateko ordenantza eguneratu eta etxebizitza handiak zatitzeko aukera sustatuko da.

3. DIRULAGUNTZAK INDARTZEA

- Gazteen emantzipaziorako eta kolektibo zaurgarri-eei zuzenduriko diru prestazioak eta gizarte laguntzak indartuko dira, koordinazio administratiboa sinplifikatuz.

4. GOBERNANTZA ETA JARRAIPEN SISTEMA

- Eusko Jaurilaritzarekiko koordinazioa sendotuko da, Bizitegi Merkaturako Eremu Tentsionatu izendapenak jasotzen dituen neurriak aplikatzeko eta kontrola egiteko.
- Ekintza planaren arrakasta bermatzeko gobernantza indartuko da, jarraipen eta ebaluazio sistemak ezarritik.

beharrezkoa dela azpimar-
tzearekin batera.

Ildo berean mintzatu da Iñigo Ruiz Hirigintza batzordeburua ere. "Bizitegi-eremu tentsionatu izendatzeak lege-esparru bat eskainiko digu neurri jakin batzuk aplikatu ahal izateko, baina Etxebizitza Plana hori baino askoz gehiago da. Erpin asko dituen arazoa da etxebizitzarena, eta faktore asko hartu behar dira kontutan: presio demografikoa, egoera sozioekonomia, etxebizitza parkearen egoera...".

Hala, etxebizitza oinarritzko eskubide moduan ulertuta, lau

ardatz nagusitan oinarritutako ekintza plana osatu du Udalak hurrengo hiru urteetarako, *Hiritik At* aholkularitzaren laguntzarekin –goiko taulan ikus daitezke egitasmo nagusietako batzuk–. "Udalak alokairu eskuragarria indartu eta etxebizitza parkea egokitu-ko du, kolektibo zaurgarri-entzako laguntzak hobetuz. Planak bide argia marrazten du etorkizunerako", adierazi du Ruizek. **Martxoaren 10ean** jendau-
rrean aurkeztuko dute ekintza plana kultur etxean (18:30), eta esku-orri bat ere banatuko du Udalak etxe guztietara. •

Oñati 'Tentsio Handiko Bizitegi Eremu' izendatzea eskatzeari ezezkoa esan dio EAJk

> Udal gobernuaren Etxebizitza Planak "ez du berehalako irtenbiderik ematen salerosketa-merkatuaren krisiaren aurrean", EAJren ustez

EAJren udal taldearen ustez, udal gobernuak aurkeztu duen Etxebizitza Planak "zehaztasun falta handia du, eta ez du helburu neurgarriak jasotzen, proposatutako neurri gehienetan. Jeltzaleen iritziz, planaren zati handia gaur egun indarrean dauden ekintzetan oinarritzen da, urteetan Oñatiko udalak bere esku izan dituen eskumen arrunten artean dauden ekintzetan: "alokairua sustatzeko *Bizigune* eta *ASAP* programak bultzatzea, alokairurako gazteentzako dirulaguntzak, Gizarte Larrialdietarako laguntzak, merkataritza lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantza, edo hutsik dauden etxebizitzak gainean jarduteko eskumena, adibidez, indarrean dauden neurriak dira, tentsionatutako eremu izendatu beharrik gabe", adierazi dute jeltzaleek.

ESKAINTZARIK EZ EROSTEKO

Udal gobernuaren Ekintza Plana, ia osorik, alokairua sustatzera zuzenduta dagoela kritikatu du EAJk, "nahiz eta diagnostikoak argi utzi Oñati tentsio-eremu izendatzeko legezko arrazoia nagusia salerosketa prezioak igo izana (%36,5) dela; hau da, arazo nagusia salerosketan egon arren, Ekintza Planaren ardatz nagusiak alokairua sustatzera eta alokairurako laguntzetara mugatu dira, ia soilik. Ez da aurreikusi neurri eraginkorrik, benetako neurririk, salerosketa merkatuan eskaintza librea edo babestua handitzeko". Ildo horretan, gelditu dagoen Kasablankako etxebizitza tasatuen (48 etxebizitza) sustapena 2028ra arte atzeratu izana kritikatu dute jeltzaleek. Eta baita etxebizitza handiak zatitzeko edo baserriak segregatzeko udal ordenantzaren eguneraketak 2027ra atzeratzea ere.

EAJren ustez Ekintza-Plan hau "asmo-adierazpena eta ibilbide-orri administratiboa baino ez da; ez da taltza-plan eraginkorra. Emtzarik izan ez duten politika zaharrak birziklatu dira". Jeltzaleen ustez EH Bildu 'Eremu tentsionatu' etiketaren atzetik ibili da, hedabideetan oihartzuna duelako, "baina Udalak ez du bere gain hartu berehalakoan, anbizioz eta ebaluatzeko moduan kudeatzeko konpromisorik. Planak ez du berehalako irtenbiderik eskaintzen salerosketa-merkatuaren krisiaren aurrean, Tentsio Eremu izendapena justifikatzen duen parametro bakarraren aurrean".

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati



Lazarragan etxebizitza gunea berria sortzeko proposamena berretsi du EAJk

2024ko urte amaieran EAJren udal taldeak hainbat iradokizun eta proposamen aurkeztu zizkion Oñatiko Hiri Antolamenduko Plan Orokor (HAPO) berriaren aurrerakin dokumentuari, "baina 2025 osoan zehar ez da inolako aurrerapenik egin", adierazi dute jeltzaleek, eta ikusirik udal gobernuak HAPO berriaren dokumentuari hasierako onarpena emateko asmoa duela, EAJk prentsa-ohar bat zabaltu du bere proposamenak gogorarazteko.

ETXEBIZITZA AUKERA ERREALISTA GEHIAGO

"Udal gobernuak esku artean darabilen dokumentuak 800 etxebizitza berri inguru planteatzen ditu, baina hazkunde horren zati handi bat lurzoru industrial aktiboen eraldaketa konplexuetan oinarritzen da (Berezaio-Eroski eta Zugaztieta-Cegasa), zailtasun ekonomiko eta tekniko handiekin, eta urte askotara joko luketen operazioekin", azaldu dute jeltzaleek, eta ohartarazi: "operazio horiek gauzatzen ez badira, Oñatik etxebizitza falta nabarmena izango du datoen hamarkadetan, eta horrek prezioak garestitzea ekar dezake, bereziki gazteentzat".

Hori dela eta, talde jeltzaleak etxebizitza eskaintza handitzea proposatu du: Alde batetik, Lazarragan (Garay finkako behealdean) dentsitate ertaineko bizitegi-eremua garatzea. Bigarren bizitegi-gunea garatzeko, Ulma Carretilas enpresa lekualdatu eta gaur egun hartzen duen eremua eraldatzea proposatzen du.

LURZORU INDUSTRIALA ETA EKIPAMENDUAK

Lurzoru industrialari dagokionez ere kezka azaldu du EAJk, HAPO berriak lurzoru galera garbia (100.000m²) aurreikusten baitu, horrek hazkundean, berrikuntzan eta enplegu sorreran izan dezakeen eragin kaltegarria kon-tuan izanda.

Bestalde, ekipamenduei dagokienez, Korriuena base-riaren inguruan lurzoru erreserba egitea proposatzen dute jeltzaleek, aire libreko igerilekua eraiki ahal izateko, besteak beste) eta San Martin egoitzaren ondoko espazioa lurzoru soziosanitario gisa kalifikatzea eskatzen dute, egoitza handitzeko edota desgaitasuna duten per-sonentzako zaintza eredu berriak bultzatu ahal izateko.

“ZEREN ZAIN ZAUDE AURREZTEN HASTEKO?”

500 Mb-eko ZUNTZA

+ 2 MUGIKOR-LINEA

34,90€/HIL
BEZa barne

Zatoz LIZKER INFORMATIKA
dendara, kontrata ezazu
zuntza + mugikor linea bat eta
aukeratu zuretzat opari hau



LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



(BEZa barne). Eta aukeratu aire bidezko frijigailua. Martxoaren 1etik 31ra, eskaintzan kontratua baduzu: 500 Mb-eko zuntza + 2 mugikor-linea, dei mugagabeekin eta partekatzeko 50 GB-rekin, hilean 34,90 €. Instalazioan 229,90 €-ko deskontua, 3 hilabeteko iraupen-konpromisoarekin. 5G abiadura, estaldura eta 5G terminalera lotuta. Existentziak amaitu arte. Ikusi gainerako baldintzak hemen: www.masmovil.es

MASMOVIL

AURREZTU, ETA KITO

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKO INSTITUZIO ARTEKO KOORDINAZIORAKO PROTOKOLOA

2025ean indarkeria matxistak Oñatin utzi dituen datuak: **EBALUAZIOA ETA ERRONKAK**


2026KO OTSAILAREN 24an bildu zen Oñatiko indarkeria matxistaren arretarako instituzio arteko koordinazio protokoloaren mahaia, eta bertan aurkeztu ziren 2025 urteak indarkeria matxistari dagokionean Oñatin utzi dituen datuak. Udaleko Berdintasun sailak, gizarte zerbitzuek eta udaltzaingoak jasotako datuak, Ertzaintzak eta osasun zentroak jasotakoarekin osatu dira.

2025 urtean, gainera, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun arloaren arteko elkarlanaren bidez, eta Oñatiko Emakumion Kontseiluak sustatuta, Oñatin Indarkeria matxista jasan duten emakumeen arretaren gaineko ebaluazioa burutu da.

Hala, aipaturiko txostena aztertuta eta urteak emandako datuak partekatuta, aurrera begirako erronka eta urratsak finkatu ditu mahaiak.

JASOTAKO DATUAK

Jasotako datuen arabera, 2025 urtean 17 kasu artatu dituzte aipatutako erakundeek.



Azken bi urteetako datuak erreferentziazat hartuz gero, joera mantentzen dela ikusi genezake.



Hala, azken 9 urte hauetan, indarkeria matxista jasan duten 118 emakumek jo dute Oñatin, gizarte zerbitzuetara, udaltzaingora, berdintasun arlora, Ertzaintza edo osasun zentrora.

Askotariko emakumeak dira laguntza eske gerturatu direnak, bai adin bai eta bestelako faktore sozio-ekonomikoei dagokionean ere. 25 eta 45 urte artean kokatzen da batzuetan besteko adin-tartea, eta erdia inguru litzateke Oñatin edo EAEn jaioa. Indarkeria psikologikoa eta fisikoa dira gehien identifikatzen den indarkeria mota, eta hirugarren lekuan legoke Indarkeria Sexuala.

Emakume horietako askok seme alabak ere badituzte eta seme alaba horiek ere indarkeriaren biktima izaten dira maiz. Kasu honetan ere indarkeria psikologikoa da gehien identifikatzen dena, eta kasu batzuetan indarkeria fisikoa ere bai.

Erasotzaileei dagokionean ere, 25 eta 45 urte artean kokatuko litzateke batzuetan besteko adin-tartea, baina emakumeena baino zerbait altuagoa da. Eta jatorriari dagokionean ere, erdia inguru litzateke Oñatin edo EAEn jaioa. Ia kasu guztietan bikotekidea edo bikotekide ohia izan da erasotzailea.



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@telexline.es

► 2025ean 17 kasu artatu dira Oñatin. Laguntza eske gerturatu diren emakumeen erdia inguru Oñatin edo EAEn jaiotakoak dira.

► Azken urteotan egin diren lege aldaketek arreta jasotzeko eta erreparazio bideak irekitzeko aukera zabaldu dute. Gaur egun ez da beharrezkoa indarkeria matxista epaitegietan salatzea, gizarte zerbitzuetatik edo berdintasun arloetatik eskaini daitezkeen baliabideetara irismena izateko.

► Indarkeria matxista jasan duten emakumeen arretaren gainean egingiko ebaluazioak hutsune nabarmenak seinatu ditu, eta horiek betetzeko helburuarekin ari da une honetan Emakumion Etxia bere zerbitzu eta arreta moduak diseinatzen

Azken urteetako datuek erakusten digute salaketak jartzen dituzten emakumeen ehunekoak behera egin duela poliki-poliki. Azken urteotan egin diren lege aldaketek, salaketaren bidea ireki gabe indarkeriaren biktima izan diren emakumeek arreta jasotzeko eta erreparazio bideak irekitzeko aukera zabaldu dute; eta hala, gaur egun ez da beharrezkoa indarkeria matxista epaitegietan salatzea, gizarte zerbitzuetatik edo berdintasun arloetatik eskaini daitezkeen baliabideetara irismena izateko adibidez. Aurrerapen nabarmena suposatu du honek, izan ere, salaketa bidea aurkeztu izan zaigu urte luzez indarkeria matxistatik irteteko bide bakar gisa, baina justizia sistemaren erritmo eta erantzunak ez dituzte, gehienetan, salatzailen errekonozimendu, arreta eta erreparazio beharrak asetzen.

Behar horiek asetzen egiten dute lan gizarte zerbitzuek gurean, eta aurki baita Emakumion etxiak ere. Indarkeria matxista jasan duten emakumeen arretaren gainean eginiko ebaluazioak hutsune nabarmenak seinatu dizkigu, eta horiek betetzeko helburuarekin ari da une honetan Emakumion Etxia bere zerbitzu eta arreta moduak diseinatzen.

Sarean lan egitea

Sarean lan egitearen garrantzia nabarmentzen da koordinazio mahaiaren urteko txostenean oraingoan ere. Protokoloaren sinatzaile diren erakunde guztien ardura da indarkeria egoerak salatzan dituzten emakumeen arreta prozesu integralak eskaintzea, eta unean uneko artatzeaz gain ahalduz, osatze eta erreparazio prozesuak laguntzea. Horrek ezinbestean komunikazio eta deribazio sistemak fintzen eta hobetzen joatea ekarri beharko luke. Bide hori ahalik eta era koordinatuenean egitea da erakundeen erronka. Aurten, gainera, ekipamendu berri bat gehituko da koordinazio mahai honetara; Emakumion etxia. Udal mailako elkarlanerako irizpideak definitu dira azken hilabeteotan.

Aurrera begirako erronken artean, profesionalen gaikuntza, deribazio prozedurak finkatzea eta elkarlanerako bideak sendotzea dira nabarmendu direnak. Guzti horren bidez, arreta hobetu eta bide-laguntza egokiago eta koordinatua bat eskaintzea litzateke helburua. ■

EMAKUMEEN JABETZE ESKOLA

IKASTAROAK

► 'Amatasunak begirada feministetatik'

Zergatik behar dute amek feminismoa? Eta zergatik behar ditu feminismoak amak? Bizitzak erdigunean jartzea aldarri duen mugimendu feministaren baitan non daude amak? Zein dira egungo erronkak?

BIDERATZAILEA: Nahia Alkorta. **Martxoak 24** (17:00-19:00). San Juan kaleko Sean. Euskaraz (Itzulpena eska daiteke, eta baita haurren zaintza zerbitzua ere). Izen-ematea: martxoaren 17ra arte.



► Twerk "Booty dance"

Mendeetan zehar emakumeon gorputzak, uteroak eta aldakak atrofiatu dituen gizarte gaixo batek sortutako gaitzak pairatzen ditugu oraindik. Gorputzetik osotasunez eta zintotasunez jarduteko behar horretatik sortzen da mugitzeko proposamen hau.



IRAKASLEA: Ikerne Mendieta. **Martxoak 27**. Kiroldegian (18-35 urte arteko neskei zuzenduta). Euskaraz. Dohainik. Izen-ematea: martxoaren 17ra arte.

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

► Ipuin ikuskizuna: 'Hariak, jostorratzak eta zauriak'

"Lotzen gaituzten hariak ikusezinak omen dira eta, batzuetan, zaila da haien neurria hartzea. Halere, beraien indarra senti daiteke. Eta batzuetan, hain dira indartsuak, beraien gainean orekari eusteko gai izaten gara. Ikuspegi feminista duen ahozko narrazio hau ekilibrista izan nahi duen elefante batekin hasi eta zauriak ondo josteko errezeta batekin bukatzen da. Narrazio saioak ez die entzuleei sartu diren bezala ateratzen utziko. Hunki- tzeraino solemnea eta barre eragiteko bihurria.

IPIIN KONTALARIA: Mireia Delgado, pedagogo feminista eta bitartekari literarioa. **Martxoak 18**, Zine Aretoa (18:30). (Haur zaintza zerbitzua eska daiteke).



ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK



Adimen Gaitasun Handiak dituzten haurren guraso talde batek **GHauzatu** elkarteak sortu du Oñatin

Bi helburu nagusi dituzte: batetik, Adimen Gaitasun Handiak zer diren gizartean azaltzea, eta, bestetik, haur horien beharrak asetuko dituzten ekintzak aztertu eta ikastetxeekin batera lantzea

ADIMEN GAITASUN HANDIEN INGURUKO HITZALDIA ANTOLATU DUTE, MARTXOAREN 14AN, LARUNBATA, GOIZEKO 11:00ETAN, KULTUR ETXEAN

W Badugu gaur egunean guraso batzuk isilean daramagun ardura. Gure haurrei proba batzuk egin ondoren Adimen Gaitasun Handiak dituztela esan digute. Batzuk horrela konturatu gara, beste batzuk irakasleren batek esanda, beste batzuk gainerako hurrekin alderatuta jarrera desberdinak dituztelako....

Guztiok dugu gauza bat amankomunean: Egoera hau ez dugu asko edo ezer erakusten gizartean. Ikasteko erraztasuna, talentua ala gaitasuna izateak eskolatan erraztasunak izatearen berdina dela uste da orokorrean. Baina abilezia horiek ingurukoengandik urruntzen gaituzte askotan. Eta haurren kasuan batez ere, zaila izaten da egoera horiek kudeatzea, batez ere emozio mailan. Ez dakite zer gertatzen zaien.

Adimen Gaitasun Handiak batu gaituen Oñatiko guraso talde bat gara: **GHauzatu**, Oñatiko Adimen Gaitasun Handiak dituzten Haurren Guraso Elkarteak.

Gure helburuak bi dira: alde batetik, Adimen Gaitasun Handiak zer diren gizartean azaltzea eta bestetik, beraien beharrak asetuko dituzten ekintzak aztertu eta ikastetxeekin batera lantzea.

Gure haurren egoerak bultzatu gaitu elkartu eta beraientzako atentzio maila altuago bat eskatzera. Beraien beharrak gure egunerokotasunean murgilduta daude eta askotan egoera zailak bizitzen ditugu gure etxeetan.

Adimen Gaitasun Handiaren barruan profil desberdin asko daude, talde heterogeneo bat da, baina gauza bat dute amankomunean: beraien jakinmina ez da asetzen eskolan. Agian gauza sinple bat dirudienak oso egoera kritikoetara eramaten ditu haurrak, adibidez:

**" ADIMEN GAITASUN
HANDIA ERRAZTASUNAK
IZATEAREKIN
PAREKATZEN DA
OROKORREAN. BAINA
ABILEZIA HORIEK
INGURUKOENGANDIK
URRUNTZEN GAITUZTE
ASKOTAN. ETA HAURREN
KASUAN BATEZ ERE,
ZAILA IZATEN DA
EGOERA HORIEK
KUDEATZEA, BATEZ ERE
EMOZIO MAILAN**

- Eskolara joan nahi ez izatea
- Eskolan kartzela baten moduan sentitzea
- Errendimendu akademiko eta autoestimu baxuak
- Jarrera desagokiak
- Ikasteko interesa eta motibazio falta
- Inongo esfortzurik gabe errendimendu bikaina izatearen ondorioak
- Apatia
- Estresa
- Antsietatea
- Somatizazioak: tripako mina, sukarra, buruko mina, ilea galtzea, eztarriko mina, psoriasis...

Ezjakintasunak haurrak itzaltzen ditu. Haur hauek klasean ez dira IKUSTEN. Espediente eta paperak betetzen dira gaur egunean. Tamalez, beraiek benetan behar dituzten ekintzak ez dituzte jasotzen.

Honekin batera, orokorrean ezjakintasuna handia dela iruditzen zaigu gai honen inguruan. Ez guraso ezta haurrek ere, ez dakigu zer den Adimen Gaitasun Handiak izatea.

Eskolen erantzuna ondorengoa da: haur hauen jakin-min eta ikasteko nahiak gainerako gelakideei egokitu behar zaizkie. Honek haur hauek desesperatu egiten ditu eta egoera hauek egunero eta ordu askoan irauten dutenez, beraien beharrak beste nonbaitetik asetu beharra izaten dute. Behar horiek, aurretik azaldutako somatizazio bezala, beraien pentsamenduetan murgilduta egotea, gelakideei adarra jotzea, molestatzeko, guztiaz paso egitea.... Izan daitezke.

Haur hauek ULERTU eta beraien beharrak asetu behar ditugu. Gure ikastetxeek behar baxuenak dituztenen erritmoa jarraitzeko eskatzen diete. Beraien beharrak asetu gabe eta, gainera, beraien ezaugarrien arabera, ikasten erakutsi gabe.

Arrazoi honengatik, gai hauek azaltzeko, Adimen Gaitasun Handien inguruko hitzaldia antolatu dugu. Martxoaren 14an, larunbata, goizeko 11:00etan izango da Kultur etxeko areto nagusian. Guztiok zaudete bertara gonbidatuak. Bertan elkar ikusiko dugulakoan.

Honez gain, edonork gai honen inguruan zalantzarik izanez gero helbide honetara idatzi dezake: ghauzatu@gmail.com.

GHauzatu elkarte

M14 · ADIMEN GAITASUN HANDIEN NAZIOARTEKO EGUNA

Adimen Gaitasun Handiak

ELKARRIZKETA

ONDOKO ARDURAK DITUZU?

- Zer suposatzen du AGHak edukitzeak?
- Ikasteko arazoak izan ditzake?
- Ondo ikusten dugu, zerbait egin beharko genuke?
- AGHak ditu. Eta orain zer?
- Zertarako etiketa jarri?
- Zergatik behar dute motibazioa?
- Zergatik dira emozionalki hain intentsoak?

MARTXOAK 14 · 11:00 · OÑATIKO KULTUR ETXEAN

ELKARREKIN ERRAZAGOA DA

ghauzatu@gmail.com
ANTOLATZAILEA: **GHauzatu**
ADIMEN GAITASUN HANDIEN OÑATI

"EZJAKINTASUNAK HAURRAK ITZALTZEN DITU. HAUR HAUEK KLASAN EZ DIRA IKUSTEN. TAMALEZ, BERAIEK BENETAN BEHAR DITUZTEN EKINTZAK EZ DITUZTE JASOTZEN.

"ADIMEN GAITASUN HANDIAREN BARRUAN PROFIL DESBERDIN ASKO DAUDE, BAINA GAUZA BAT DUTE AMANKOMUNEAN: BERAIEK JAKINMINA EZ DA ASETZEN ESKOLAN. AGIAN GAUZA SIPLE BAT DIRUDIENAK OSO EGOERA KRITIKOETARA ERAMATEN DITU HAURRAK

"ESKOLEN ERANTZUNA ONDORENGOA DA: HAUR HAUEK JAKINMIN ETA IKASTEKO NAHIAK GAINERAKO GELAKIDEEI EGOKITU BEHAR DIRA. HORREK DESESPERATU EGITEN DITU HAURRAK

Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua konpromezu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza
- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna
- ✓ Etxebizitza
- ✓ Aurrezkia
- ✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@ocentes.catalanoccidente.com

PINTURAS URBIA
MARGOAK

Ultzeqin kalea, 3 - Behea B / 652 710 837



Sastrakak kentzeko besoa erosi du Udalak

Udal brigadak duen traktoreari lotuta, auzo-bideetako sastrakak mozteko beso berria erosi du Udalak. Bi enpresa aurkeztu dira lizitaziora eta, azkenean, Servimac Suministros Agrícolas Industriales S.L. izan da irabazlea, eta Rosseau etxeko Kastor 550PA motako besoa erosi du Udalak 52.744 eurotan (BEZ barne). Udalak urtean bi kanpaina egiten ditu baserrietako auzo-bideak garbitzeko. Iaz atzeratu egin behar izan zen besoarekin izandako arazoak tarteko, baina aurten prest egongo da ekipamendu berria.

Garabia erosi du Udalak, hilkutzak hilobiratzeko



Ondoko argazkiek erakusten duten moduan, hilkutzak hilobiratzeko garabia erosi du Udalak. Orintsu arte, lurperatzaileak sepultura barrura sartu behar izaten zuen kanposantuko hainbat hilobitan, eta udaleko Lan Arriskuen Prebentziorako batzordeak egindako txostenen aztertu ostean, aurrerantzean gorpuak garabi baten laguntzarekin goitik sartzea erabaki du Udalak, arriskuak ekidin eta hilobiratzeko lanak modu seguruagoan gauzatu ahal izateko. Lizitazioa abian jarri ostean, argazkiko garabia erostea erabaki du Udalak, 47.994 €-tan (+BEZ).



Lankidetza hitzarmena sinatu dute Udalak eta Musika Bandak

Hurrengo lau urteetarako (2026-2029) lankidetza hitzarmen berria sinatu dute Udalak eta Oñatiko Musika Banda Elkarteak, azken honek musikaren eta kulturaren alde egiten diharduen lan oparoa eskertu eta babesteko helburuarekin. Hala, aurtengo 91.192 euroko laguntza emango dio Udalak, urtean zehar antolatzen duen programazio, funtzionamendu eta bestelako gastuei aurre egiten laguntzeko. Izaro Elorza alkatea, Iñaki Olalde Kultura batzordeko burua eta Ion Astigarraga Oñatiko Musika Banda elkartearen lehendakaria izan dira sinadura ekitaldian.

Hilerriaren funtzionamendurako ordenantzaren inguruko kontsulta publikoa ireki du Udalak

Kanposantua kudeatzeko erregelamendua eguneratzeari ekin dio Udalak, indarrean dagoena 1994koa baita, eta halako prozeduretan ohikoa den moduan, aurretiazko kontsulta publikoa ireki da, herritarren ekarpenak jaso ahal izateko. Udal webguneko formularioan edo HAZ bulegoko eskaera orriaren bidez egin daitezke ekarpenak martxoaren 25era arte.

Udalak 449 mila euro gehiago jasoko ditu Foru Funtsatik

2025eko zerga bilketa kanpainaren likidazioa egin ostean, Foru Ogasunak jakitera eman du Gipuzkoako udalek urte hasieran aurreikusitakoa baino 29 milioi gehiago jasoko dituztela Udalen Finantzaketarako Foru Funtsetik. Oñatikoak, zehazki, 449.315 euro gehiago jasoko ditu, guztira, 10.841.343 euro. Aurten Oñatiko Udalak 11.030.450 euro jasotzea aurreikusten da.

HILOBIK EGOKITU BEHAR

Garabia erabili ahal izateko, baina, hilerriko zenbait hilobi eta panteoitan egokitzapen lanak egin behar dituzte hauen jabeek, hilkutzak goitik sartu ahal izateko moduan jartzeko. Bestalde, hilerriko alde zaharreko hainbat panteoien kontzesio edo emakidak iraungita daude, eta hauek berritzeko apirilera arteko epea zabaldu du Udalak.



0-3 urteko haurrentzako jolasgune berria erabilgarri San Lorentzon

> Hiru gune ditu parkeak, mugitzeko, esperimentatzeko eta jolas sinbolikoetarako aukera ugariarekin

Erabilgarri dago jada, San Lorentzon, autobus geltokiaren atzealdean, 0 eta 3 urte arteko haurrentzat Udalak egokitu duten 'Artxubi' jolasgunea. Hiru gune eskaintzen ditu parkeak. Batetik, haur txikienentzat, toxikorik gabeko kortxozko zoru leun eta biguna duen eremua, nahieran, etzanda edo lau hanketan ibil daitezten. Banku batek inguratzen du gune hau, zainzaileak eseri eta elkartzeko, bai eta txikiei lehen pausoak ematen laguntzeko. Bestetik, *Baserria* eta *Herria* guneak daude. Lehenengoak pinu azalezko zorua du, eta egurrezko ardiak eta txerriak, haurren jostagarri. Bigarrenak hondarrezko zorua dauka eta oreka lantzeko zirkuitua ere badu. Gainera, hondarrarekin eta iturriko urarekin esperimentatzeko eta sukalde zein denda rol jokoetan aritzeko aukera ere eskaintzen du. "Aisialdira mugatu barik, jolasguneek haurren autonomia eta garapen integrala lantzeko bitarteko izatea nahi dugu, eta helburu horrekin diseinatu eta hornitu dugu", adierazi du Ekhiñe Mendik, Haur eta Gazteria zinegotziak. Artxubiko jolasgune berria lehendik dagoen jolasgunearen ondoan dago, eta horrek adin desberdinetako haurrak dituzten familien zaintza lanak erraztuko ditu.

ZAINTZAILEEN INPLIKAZIOA

Artxubiko jolasguneak badu beste berritasun bat ere, eta zer da: gunea txukun mantentzeko tresnak –erratzak, pala eta eskuarea– jarri direla bertan eta, ildo horretan, zaintzaileen inplikazioa eskatzen du Udalak, jolasgunea egoki erabili eta txukun mantentzeko.

Jolas parke berri honek Udalak herriko jolasguneen inguruan egin zuen 'Jolastuku' diagnostikoan du oinarria, azterlan hark 0-3 urte arteko haurrentzako jolasgune beharra identifikatu baitzuen, besteak beste. Artxubi jolasgunea eraikitzeko lanak 48.211 €-tan egin dira.



Ekhiñe Mendi, udaleko Haur eta Gazteria batzordeburua, eta jolasgunea diseinatu duen *Projekta Urbes*-eko Patxi Garraga, *Baserria* gunean. Behean, kortxozko zorua duen gunea, ezkerrean, eta *Herria* izeneko eskumana.



Oñatiko LGTBIQ+ diagnostikoa aurkeztu du Udalak

Herriko LGTBIQ+ errealitatea ezagutu eta aurrera begirako politikak zehazteko helburuz, diagnostiko prozesua jarri zuen abian Udalak orain dela urtebete. Pertsonen bizipenetatik abiatu zen datu bilketa, eta metodologia kualitatiboa erabili da. Tailerrak, taldekako zein banakako elkarrizketak, instituzioekin lan saioak eta gai zehatzen inguruko tailerrak egin dira, besteak beste.

Denera, 30 pertsona baino gehiagok hartu du parte prozesuan, eta udal arduradunek adierazi dutenez, egindako lana abiapuntua da, oinarri sendoa Oñatiko LGTBIQ+ politikentzako norabidea ezartzeko. Bide-orri moduko bat izango da nondik hasi eta non eragin behar den identifikatzeko. Gainera, harremanak eta sareak sendotzeko aukera ere eman du. Udalaren webgunean dago ikusgai diagnostikoa.

Berdintasunerako dirulaguntza deialdia

Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzeko ekintzak babestea xede duen dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Martxoaren 31ra arte egin daitezke eskaerak.

Emantzipaziorako dirulaguntza deialdia

18 eta 35 urte arteko gazteei zuzendutako laguntza deialdia egin du Udalak. Gutxienez, 12 hilabeteko alokairu kontratua eduki behar da, eta eskatzai-learen gehieneko diru-sarrerak urteko 28.000 eurotan finkatu da. Urriaren 11ra arte aurkeztu daitezke eskaerak.

Kirol arloko laguntzak

Udaleko kirol sailak herriko kirol elkarteen ohiko jarduerak eta kirol proben antolaketa gastuei aurre egiteko dirulaguntza deialdia egin du. GAO-n argitaratu ondoren hilabeteko epea irekiko da eskaerak aurkezteko.



EGITARUA

MARTXOAK 1

Emakume artisauen azoka

Berdura plazan (10:00-14:00)

MARTXOAK 8

- Elkarretaratzea / Patotan (12:00)

- Manifestazioa / 12:30etan.

Olakuan hasi eta amaiera Foruen plazan. Ekitaldi musikatua.

- Bazkaria / Gaztetxean (14:30).

Ondoren, bingo musikatua. Bazkariko tiketak Arranon eta Eltzian salgai.

ERAKUSKETA

'Emakume erreferenteak' argazki erakusketa herriko komertzio eta txoko ezberdinetan.

Mugimendu feministak 'beste mundu bat' aldarrikatuko du martxoaren 8an

Euskal Herriko Mugimendu Feministak martxoaren 8an kalera ateratzeko deia egin die emakumeei, transei eta lesbianeiei **Beste mundu bat feminismotik** lelopean. "Noraeza, etsipena eta beldurra" gailentzen ari diren honetan, "isilik eta otzan" geratu barik sistema kapitalista zisheteropatriarkal, kolonial eta arrazistari aurre egiteko deia egin dute.

Azken urteotan aurrerapausoak eman direla onartuta ere, oraindik asko dagoela egiteko gogoratu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak. Ekiteko ardura, baina, ez da soilik feministena, gogorazi dute, instituzioak, patronalak eta gizonak direlako desberdinkeriak areagotu eta askotariko zapalkuntzak betikotzen dituen sistema honi eusten diotenak eta, beraz, dagozkien ardurak "urgentziaz" hartzea eskatu die mugimendu feministak.

UDALAREN ADIERAZPENEA

Oñatiko udalbatzak ere adierazpen bat onartu zuen aho batez otsaileko osoko bilkuran, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorrek duen konpromisoa irmoki berretsiz. Berdintasunaren defentsa giza eskubide unibertuala dela dio testuak, eta berdintasunik gabe ez dagoela erabateko demokraziarik. Azkenaldian ugaritzen ari diren diskurtso misogino eta antifeministei aurre egiteko konpromisoa ere berretsi du udalbatzak, eta dei egiten die herritarrei M8ko ekitaldietan parte hartzera.

ZOZKETA

'Denon bizitzak erdigunean!' zozketako zenbaki saritua 0936 izan da, eta honen jabe zen Belen Zumalderentzat izan da saria, saski erotikoa. Zorionak Beleni, eta mila esker parte hartu duten guztiei.



Lanbidearteko Gutxieneko Soldata Euskal Herrian erabaki dadin greba orkorrerako deia egin dute martxoaren 17rako



Sindikatoek eta hainbat herri eragilek Elorregin egindako graba deialdian

Gutxieneko soldata hemen eta orain leloa hartuta, martxoaren 17rako greba orokorra deitu dute ELA, LAB, Steilas, Etxalde eta HIRU sindikatuek, hainbat herri eragile eta gizarte mugimenduren atxikimendurekin. Egun indarrean dagoen gutxieneko soldatak bizitza duina ez duela bermatzen salatu dute, eta datu konkrituak ere eman dituzte: Hego Euskal Herrian 5 langiletik batek 1.500 eurotik beherako soldata dauka, egun, eta hala daude, 239.535 langile, gutxienez. Horietako 3tik 2 emakumeak dira eta 2tik 1 migrantea da. Laurdena berriz, 30 urtetik beherako gazteak dira.

LAGS-a Hego Euskal Herriko erakundeetan erabaki eta enpresarien elkarteak negoziazio mahaitara bultzatzeko deitu da greba orokorra, baina beste aldarrikapen batzuk ere egingo dira: euskal alderdiek neurri horiek babestea, gutxieneko pentsioak eta prestazioak jasotzea, arrakala matxista eta arrazistak murriztea eta soldatak hobetzeko eta aberastasunaren banaketa justuago baterantz jotzea, besteak beste.

Oñatik harrera beroa egingo dio aurten ere **KORRIKARI**

Martxoaren 28an iritsiko da Arrasatetik Elorregira, goizeko 04:45etan, eta Oñatiko joan-etorria egingo du, berriz ere Elorregira (06:15), Bergararuntz jarraitzeko

IBILBIDEA ETA ORDUTEGIA

Bilbon amaitu bezperan iritsiko da KORRIKA-24 Oñatira, martxoaren 28an. Aurten ere goizeko ordu txikietan igaroko da, orain dela bi urte bezala, baina ziur gaude herria kalera aterako dela euskararen aldeko ekitaldi erraldoi honi behar moduko harrera egitera.

Larunbat goizeko 04:45etan iritsiko da Korrika San Prudentziora, Arrasatetik igaro ostean, eta ibilbide hauxe egingo du Oñatiko herrigunean: **saihesbidea** - kiroldegia - Bidebarrieta - Motxon - Ultzein (eskumara) - Arantzazuko Ama (ezkerrera) - Atzeko Kale - Foruen Plaza - Kale Zaharra - Otadui Zuhaitzia. Eta oñatiko bira osatuta, 6:15 aldera irtengo da Elorregitik Bergararantz.

KILOMETROEN BANAKETA

Oñatiko Korrika Batzordetik jakinarazi digutenez, oraindik jendea falta da Korrikak Oñatin egingo dituen kilometro guztiak betetzeko, lekukoa eramango duten talde, elkarte edo enpresen zerrenda osatzeko. Interesa duzuenok jarri lehenbailehen harremanetan debagoiena@korrika.eus helbidearen bidez.

'KORRIKA-LAGUNAK'

Oñatiko Korrika Batzordea 'Korrika-Lagunak' biltzeko kanpaina dabilta murgilduta. Herriko enpresa, elkarte, denda, taberna, zerbitzu, erakundeei... gutun bana helarazi diete, Korrikarekin bat egin eta Korrikari laguntzeko aukera edo bide ezberdinen berri emanez, eta Korrika-Laguntzaile izateak dakarren abantailen berri emateko. Norbanakoak ere izan daitezke Korrika-Lagun Informazio gehiago: www.korrika.eus.

KORRIKA KULTURALA

Ondoko zutabearen ikus daitekeen moduan, Korrika iritsi arteko egunetan giroa berotzeko kultur egitarau osoa prestatu dute. Animatu eta parte hartu!. Gogoratu, martxoaren 27an Korrika Txikia egingo dela herriko kaleetan barrena.

TABERNETAN EUSKAL MUSIKA

Korrika Batzordeak gutun bana igorri die herriko tabernei, urte osoan zehar, baina, bereziki, Korrikak dirauen egunetan eta, zehazki, martxoaren 27ko arratsaldean eta taberna itxi bitartean, euskaraz eginiko musikaren aldeko apustua egiteko eskatuz, euskarazko abestiek ongi pasatzeko eta dibertitzeko gainerako hizkuntzetan eginikoek adina aukera eskaintzen dutela gogoraraziz.



KORRIKA KULTURALA

- **MARTXOAK 18 / Eltzian, 19:30**
GARTXOTen kontzertua. Dohainik.
- **MARTXOAK 20 / Antixenan, 22:00**
KE LEPO ETA FELIX BUFF + PUNTU TAKOMA taldeen kontzertua (3€/8€).
- **MARTXOAK 22 / Gaztelekuan, 12:30**
BELHARRA taldearen kontzertua (10€).
- **MARTXOAK 25 / Zine aretoan, 18:30**
LABURBIRA. Euskarazko film laburren zirkuitu ibiltaria. Zazpi laburmetrai ikusgai.
- **MARTXOAK 27 / Enpresagintzan, 14:30**
MAHAI-INGURUA: 'Euskara enpresa munduan'. Hizlariak: Jone Urzelai (Onnera Group), Iban Calvo (ULMA), eta EMUN eta Enpresagintza fakultateko ordezkari bana.
- **MARTXOAK 27 / Herriko kaleetan, 14:30**
KORRIKA TXIKIA. Foruen plaza - Kale Barria - Etxaluze - Maria Irizar - Euskadi Etorbidea - Santa Marina - Bakardadeko Ama - Foruen plaza (14:30-16:30 artean).
- **MARTXOAK 27 / Foruen plazan, 17:00**
ERROMERIA 'Gauargi' taldearekin, eta, ondoren, erraldoi eta txorimaloen kalejira.
- **MARTXOAK 27 / Pago Uso, 21:00**
KANTU AFARIA. Menua: urdaiazpikoa, pate, penka beteak, txanpinoiak, oilas-ko errea eta gazta flana. Txartelak (26€) Txokolateixan salgai, hilaren 20ra arte.
- **MARTXOAK 28 / Makalena elkartean**
TXOKOLATADA. Korrika eta gero.
- **MARTXOAK 28 / Santa Ana, 17:00 eta 19:00**
POTX eta LOTX pailazoek. 'Lagunekin topa!' ikuskizuna eskainiko dute. Bi pase egongo dira.

 **COINBROKER**
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

📍 ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA
☎ 943 089 006 📞 688 774 531 - WHATSAPP
✉ OINATI@COINBROKER.EUS



GARIKOITZ GOIKOETXEA / Kazetaria eta Hizkuntza Plangintzako unibertsitate-espezialista

"Atzerantz has gaitezke euskararen ezagutzan, transmisioan eta erabileran, eta atzerakada bereziki sumatuko da eremu euskaldunenetan. Beraz, hortxe daukagu erronka: joerak iraultzea"

Zeresan ugari eman du Iñaki Iurrebaso (Legazpi, 1967) eta Garikoitz Goikoetxearen (Elduain, 1989) 'Esnatu ala hil. Euskararen oraina eta geroa, diagnostiko baten argitan' (Elkar, 2025) liburuak euskaltzaleen artean. Euskararen biziberritze prozesua geldialdian eta euskalgintzatik alarmak piztuta dauden momentuan, euskararen egoera eta etorkizuneko erronkak kokatzeko gakoak ematen ditu. Hala, otsailaren 9an, Aixotu Euskara Taldeak gonbidatuta Garikoitz Goikoetxea Oñatin egon zen liburua aurkeztzen. **TESTUA: XABIER ETXEBARRIA**

Hirugarren ediziora iritsi da 'Esnatu ala hil'. Interes handia piztu duela dirudi. Zergatik uste duzue izan dela horrela?

Bai, guk espero baino askoz interes handiagoa sortu du. Salmentetatik harago, herri ugari-tatik ari gara eskaerak jasotzen liburua aurkezteko; Oñatikoa ia 40. saioa da, eta jada 1.200 lagunetik gora bildu dira aurkezpenera. Sumatzen ari gara badagoela kezka euskaltzaleen artean, eta askori liburua baliagarri izan zaiela inguruan sumatzen dutena ulertzeko. Hori izan da gure ahalegina: euskararen egoera kaleko euskaltzaleei azaltzea, ahalik eta modu ulergarrienean.

Euskararen biziberritze prozesua *inpas*se egoeran dagoela diozue. Zeintzuk dira hori esatera eramaten zaituzten adierazleak?

Egiturazko adierazle batzuetan sumatzen da orain hamarkada batzuetako aurrerabidea mantsotua daukagula. Adibidez, kaleko erabileraren azken neurketetan ez da izan aurrerabiderik, eta %13 inguruan dago Euskal Herriko erabilera; edo Hego Euskal Herrian jaiotzen diren umeetatik bostetik batek

jasotzen du etxean euskara, eta hamarkadak daramatzagu ehuneko hori areagotu ezinik. Bi adierazle garrantzitsu dira. Maila kualitatiboan ere nabari da geldialdia. Esango nuke gainera aldaketa-premiari buruzko adostasuna nahiko hedatua dagoela euskararen arloan: batek *jauzia* esango dio, besteak *pizkundea*, besteak *bidegurutzia*... Aldaketak behar ditugula, azken batean.



Garikoitz Goikoetxea

Hizkuntza-politika egiten da hirigintzan, industrian, turismoan, osasunean, hezkuntzan... Eremu euskaldunek ikuspegi osoa behar dute.

Etorkizunari dagokionez hiru joera egon daitezkeela aipatzen duzue; biziberritzeari berri heldu, egonkortzea gaur egungo egoeran edo behe-rakada. Oraintxe bertan, zein ikusten duzue errealistena?

Siadeco ikerketa-taldeak proiektio bat egin zuen iaz UEMArentzat, eta gordina da ondorioa: gaur egungo datuetan oinarrituta aurreikuspen bat eginda, behe-

rakada etor daiteke. Hau da, atzerantz has gaitezke ezagutzan, transmisioan eta erabileran, eta atzerakada bereziki sumatuko da eremu euskaldunenetan. Hortxe daukagu erronka: joerak iraultzea. Kontuan hartu behar dugu funtsezko gai bat: aurreikuspenak inoiz ez dira kristalezko bolak, baizik eta egungo bilakaeren erreplika gisakoak. Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu, eta badaukagu atzera begiratu beharra: 1960-1970eko hamarkadetan hasitako pizkundea. Orduko hartan egin izan balute era horretako proiektio bat, zein izango zen haren ondorioa? Euskara desagertzeko bidean zela. Eta ez da halakorik gertatu. Hain zuzen ere, egiturazko aldaketak jarri zituztelako martxan. Hori dugu erronka gaur ere.

Zeintzuk lirateke, biziberritze prozesuari, pizkundeari, berri hartzeko erronka edo gako nagusiak?

Uste dut oinarritzko gakoak dela egoeraz ohartzea, hori baita edozein aldaketa egiteko lehen pausoa: begiak irekitzea. Ohartu behar dugu nola ari den aldatzen euskararen egoera. Azken hamarkadetan egin dugu bide bat, lortu ditugu emaitza batzuk, baina erronka handiak daukagu aurrean. Egoera soziolinguistikoa aldatu egin da, eta orain 40 urte baino oinarriz hobea daukagu oro har: euskaraz jende gehiagok daki, euskarazko hezkuntza ari da hedatzen, eremu askotan ari gara orubea sendotzen...

Baina ez da nahikoa. Erdararen indarra handia da Euskal Herrian, eta haren eraginak jan egiten digu gure ahaleginaren zati handi bat. Globalizazioak dakartzan aldaketa azeleratuak ere aurrean daukagu. Esango genuke gogoeta hau egin behar dugula egungo egoeran: orain arte egin dugunarekin, honaino iritsi gara; aurrerago jotzeko — eta ezinbesteko dugu hori —, orain arte egindakoaz haragoko



Irñaki lurrebasorekin batera, 'Esnatu ala hil. Euskararen oraina eta geroa, diagnostiko baten argitan' liburu mamitsu eta interesgarria idatzi duen Garikoitz Goikoetxea Oñatin izan zen otsailaren 9an, Aixotu Euskara Taldeak antolatutako hitzaldian.

lana behar dugu.

Euskalgintzatik larrialdi linguistikoan gaudela aldarrikatzen bada ere, hainbat sektorek ez dirudite oso sentsibilizatuak gaiarekin, hainbat sindikatu eta alderdi edota epailetza kasu. Baina aldi berean Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen aldeko jarrera oso zabalduta dago. Nafarroa eta Iparraldean aldeko jarrera hori ez da horren argia. Zein mezu edo jarrera dagokigu euskaldunoi sektore horiek euskararen biziberritzearen aliatu izateko?

Egia da euskal herritarren zati handia bizi dela euskararekin batere harremanik gabe, eta hori arazo handia da euskara indarberritzeko: euskal herritar gehienek euskara ez dute ulertu ere egiten, eta Euskal Herri gehienean euskarak presentzia sozial oso mugatua du. Iritziei dagokionez, Euskal Herria oro har hartuta, gehienak ageri dira euskara sustatzearen alde, baina badira kontrako jarrerakoak ere, eta tarteko jarrera epelean daudenak. Azken bi talde horietan eragiteari dagokionez, bi helburu aipatuko nituzke: kontrakoak desaktibatzea —eta ez dakit azken hilabeteetako testuingurua ez ote den



Interesa handia piztu du 'Esnatu ala hil' liburuak. Dagoeneko 3. edizioa iritsi da.

ari haiek ahalduz —, eta epel daudenak pixkanaka ekartzea. Hainbat arlotatik eragin behar da, eta seguruenik hezkuntza da hor daukagun lehentasun nagusia. Baina, iritzietan eragiteko, bada puntu interesgarri bat: euskararen ametsa beste amets batzuekin uztartzea. Korrikan Errigora omendu dute aurten, eta adibide egokia da: euskararen ametsa uztartu du Erriberaren garapenarekin eta lehen sektorearen sustapenarekin. Badugu horrelakoen premia beste eremu askotan.

Oñati herri euskalduna da. 10.000 biztanletik gorako herrietan euskararen kale erabilerara %60tik gorakoa duen herri gutxietako bat da. Salbuetsita gaude euskararen biziberritzeak dituen mehatxuetatik?

Inola ere ez, eta ikusi dugu hori azken hamarkadetan: eremurik euskaldunenetan izaten ari gara atzerakadarik handienak. Leku horietan izan dezakegu arrisku

bat: egoera ahulagoen daudenei begira geratu, eta norbere joeraz ez ohartzea. Eremu euskaldun horien premia gorria du euskarak, eta ez soilik ikuspegi sinbolikotik, edo are gutxiago ikuspegi bukoliko batekin: eguneroko erabileraren zati esanguratsua egiten da Oñatiren gisako herrietan, horiexetan baitago euskaraz aritzeko egokierarik handiena. Badugu zertan eragin: azken hamarkadetako bilakaera aztertu, datorrenari begiratu, eta ditugun indargunez eta ahuleziez hausnartu, oinarri argi batekin: hizkuntza-politika ez dela egiten euskara-elkarteetatik edo administrazioetatik euskara-sailetatik soilik. Hizkuntza-politika egiten da hirigintzan, industrian, turismoan, osasunean, hezkuntzan... Eremu euskaldunek ikuspegi osoa behar dute.

Liburuaren amaiera aldera biziberritzea edo pizkundea ahalbidetzeko hainbat proposamen edo iradokizun egiten dituzue. Zeintzuk egokituko litzaizkioke Oñati moduko herri bati?

Uste dut gako guztiak direla baliozkoak Oñatiren gisako herrietan, beren egoera oinarritzat hartuta. Hau da, Oñatin ere behar dugu orain artekoari balioa ematea, gertatzen ari zaigunaz ohartzea, euskararen gaia lehentasunetara igotzea, beharra sortzea, ikuspegi osoa izatea, nagusitasuna lortzea eta euskaldunen sareak ehuntzea, atxikimendua elikatzea, eta, batik bat, olatu berria altxatzea. Ikuspegi nazionala behar dugu, eta hor ere baditugu pausoak emateko; baina, ikuspegi nazionalarekin batera, tokian tokiko errealitateari egokituta aritu behar dugu. ■



Eremu euskaldunen premia gorria du euskarak, eta ez soilik ikuspegi sinbolikotik, edo are gutxiago ikuspegi bukoliko batekin: eguneroko erabileraren zati esanguratsua egiten da Oñatiren gisako herrietan



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariako erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.:943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Iñigo Arregi

Diseinua eta Maketazioa:

Iñigo Arregi eta Jabier Erostarbe (azala)

Kolaboratzaileak:

Roberto Altuna, Gaztelekua
Natur Eskola eta udaleko Berdintasun saila

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

Inoizko Korrikarik euskalnfarrrena

Beñi Agirre

2026ko Korrikari Pello Reparazek jarritako kanta eta musika lehen aldiz entzutean, ezin izan nuen saihestu halako zirrara bat gorputzean barrena igarotzea. “Xiberutikan mendebaldera”. Zenbat oroimen. Lehenengo Korrika hura, Oñatitik-Bilbora, Xiberuan barrena izan zen. Oraingoa, berriz, Xiberutikan mendebaldera, Bilbora, baina, aurrenekoaren infrontzua.

Lehenengo Korrikan, 1980ko azaroaren 29an, irteera ofiziala baino pare bat edo hiru ordu lehenago geunden bilduta Oñatiko udaletxean, AEKko Batzorde Nazionalako kideok Eli Galdos anfitrioi zela eta Jose Maria Satrustegi aita ponteko lanetan. Orduan, sortu baino gehiago sendotzen hasitako AEK ezezaguna zen ekimen erraldoi baten aurrean jarri zen: Korrika.

Bizkaia zen ikasle-irakasle kopururik handiena eta ekonomia indartsuena zituena. Bilbotik etorri zen proposamena. Onartu, eta bertan jarri genuen egoitza nagusia. Garaiko “Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea” zazpi probintzietan zegoen antolatuta, Iparraldeko hirurak batera. Erronkak oinarritzkoak ziren: gaueskola-euskaltegi sareak aktibatzea, gehien-gehienak ziren borondatezko irakasleentzat irakasteko materiala sortzea eta banatzea, euskarazko jardunak lehenestea (gero, kopia genien Eibarkoei “euskaraz eta kitto” esaldia), ikasleentzat motibazio kanpainak denok batera egitea eta Koordinakundea bultzatzea. Eta nola? Egurrezko lekuko bat ikurtzat hartu eta bata besteari pasatuz Euskal Herri osoa itzulinguratuz. Eta kitto!

Eta hantxe geunden gu, Xabier eta biok Oñatiko plazan. Ez genuen hasiera ikusi. Ordu erdi bat lehenago auto txiki bat hartu eta bidea egiteko ardura genuen, lekukoa hartu eta bere txanda egiteko ea jenderik ba ote zegoen ikustera. –Eta ez bazegoen? –Nahi

duzuen bezala konpondu, izan zen erantzuna. Zubillagatik behera Elorregira. Dena ondo. Handik Musakolara. Arrasatera iristen ari ginela kristoren jende piloia, gaueko 12ak aldera izango zen eta elur maluta batzuk auto gainean erortzen zirela atera ginen handik. –Hau da hau!, esan genuen. Baina, Arrasatetik Elgetara? Beno..., hemen bai, hemen ez dakigu, hemengoak etorriko dira, bai, bai, lasai, etorriko dira...

Elgeta herriko sarrerara iristen ari ginela jendea pilotariz jantzita, aizkolariak, segalariak eta hara!, harri biribil batekin beroketak egiten gizon bat kamiseta txuri tiranteduna sorbaldan. Elurra mara-mara. –Zer da hau?, galdetu genien. –Lasai!, hemendik eramango dugu plazara eta han “exibiziya” egingo diagu. –Ez, ez, ez “Korrika ezin da gelditu”. Bestela sekula ez ginen iritsiko. Bertan geratu behar izan genuen eta “tiraka” atera behar izan genuen lekukoa.

Bidean talde asko aurkitu genituen halako txokoan gertakari latzak izan zirelako oroimen “geldia” egin nahi zutenak edota herriko pertsona ospetsu baten etxe aurrean –“pixka bat gelditu”, eskatzen zutenak. Lekukoarekin zer egin behar zen eta Korrika ez dela gelditzen azaltzea oso maiz argitu behar izan genien.

Irunera ere heldu ginen, ez dakit zer ordu izango zen baina korrika etorri aurretik ordu bat lehenago hantxe ginen *policia nacionalarekin* eta *gendarmekin* hitz egiten –*Si porque ahora viene la korrika y tenemos que pasar para continuar la carrera por Francia...* (1980a zen). –*Ah, sí. Algo hemos oído. No hay problema, cuando lleguéis os identificamos y ya está.* Hortxe zetozen “San Tiago” zubiaren lehenengo kaxetara 500 edo 600 lagun. –*¡Alto! Póngase en fila con el carnet en la mano.* –*¿Y usted, qué lleva en ese palo?* Bien bitartean jendea gainean, alboetatik, hesiaren azpitik... –*eh, eh, paren, paren.* –*tranquilo, tranquilo, pero* “Korrika ezin da geldituuu”

Jada ez dut gogoratzen zer non gertatu zen; eta batzuetan, ezta noiz gertatu zen ere.



Gogoratzen ditut Iparraldeko zeharkaldi luzeak, jende gutxiarekin. Jende gutxi, nahiz eta inguruan bizi ziren hegoaldeko batzuk egoera baliatu zuten hilabeteetako zuloetako itxialditatik aterata "bixita" egiteko eta sekulako "txutea" hartuta berriro zulora itzultzeko. Autobusa bidali behar izan ziguten Bilbotik. Beste lagun batzuk Eibarren, Donostian eta Irunen hartu eta Zuberoara. Autobusa aurrera, eta jendea falta zen tokietan autobusetik bikoteka jaisten ginen, txanda egin eta itxaron autobusak berriro jasotzeko. Agian ez zen hori kontatu behar, baina tira!

Horrela iritsi ginen Garazira. Ondo, baina Ibañetako gaina itxita zegoela esaten ziguten. Bideko tarte askotan elurretan etorri ginen eta Arnegi-Luzaiderraino ere iritsi ginen, zer aurkituko genuen oso ondo jakin gabe. Orduan ez ziren telefono mugikorrak existitzen. Aurrera egitea erabaki genuen, korrika ez bazen ere oinez jarraituko genuen, baina, Korrika ez zen geldituko. Hara non ikusten ditugun Luzaiden Sagrario eta Lurdes Nafarroako Diputazioaren elurtutako bideak irekitzeko makina baten atzetik. Makinak buelta eman eta buldozerraren atzetik igo ginen denak, jendea eta autoak. Karlomagnok ikusi izan baginduen esango zukeen "Arraioa!, baskoi hauek ez dira geldirik egoteak" eta Akisgraneko urrezko hilkutxan sartuko zatekeen berriro.

Nafarroa Garaia zeharkatu eta Errioxara iritsi ginen. Stop. Guardia zibilak. –Hau ez da ez "Navarra" ez "País Vasco". –Hemendik ez zarete pasako. "Nafarroa Euskadi da" hasi ziren batzuk ahopeka. Nik orduan ez nekien Euskadi (EH) zela Nafarroa, hantxe Errioxako muga. Itzuli handiago bat ez egiteagatik eta soroetan barrena ez sartzeagatik egin behar genuen kilometro pare bat bakarrik Errioxan. Guk, berriz baietz, bagenuela baimena. Haiek irrati bidez gobernadore zibilarrekin kontsulta batzuk eginda, OK, aurrera. Lekukoa aurrean jarrita ondo eskolatuta egin genuen bidea.

Bilbora iristea ikaragarria izan zen. Auzoak eta kaleak jendez beteta. Oraingoan eskualde askotatik antolatuta ziren autobusak. Bilbo hiriko igarobideak Korrikaren aldeko jendez lepo zeuden eta jendearen aldarriak

era guztietakoak ziren, garai hartakoak, "Euskal Herrian, euskaraz" bezalakoak eta talde bakoitzak bereak. Gaztelaniaz "Feria de Muestras de Bilbao" zena, gaur "Bilbao Exhibition Centre" dena, euskaltzalez lepo bete genuen. Badugu lana oraindik. Festa handia izan zen eta AEK euskalgintzaren mugimendu indartsu eta erreferentziazkoa bihurtu zen. Herri oso baten autogestioaren ondorio izan zen batez ere, eta hari esker gaur egun arte gelditu ez dena.

2026ko 24. Korrikak izan dezala erabateko arrakasta. Gainditu ditzala 46 urte geroago Irunen eta Errioxan lehenengoari jarri zitzaizkion hesiak, baita

euskaldunon barnekoak ere. Mundua biribila da, eta Ipar eta Hego Poloak izan ezik, dena da zerbaiten iparraldea edo hegoaldea, mendebaldea edo ekialdea. Aurtengo kantak dioen bezala izan dadila Xiberutikan (azkeneko ekialdeko muturretik) mendebaldera (azkeneko txokoraino) euskalgintzan ari garenen bateragile. Izan dadila inoizko Korrikarik euskalnafarra. Eta eskari zuzen bat: eraman ditzala lekukoak ibilbide osoan gaurko Euskal Herria irudikatzen duen ikurrina zein euskalnafar guztion katerik gabeko Nafarroakoarena, EH ere barne duena eta batu behar gaituen historikoa. Biak ala biak gureak dira eta. •

» OHAR ETA DEIALDIK «

Udal Euskaltegiko matrikula-zozketaren irabazlea

Ikasturteko matrikularen kostuari dagokion diru-saria zozkatu ohi du Oñatiko Udalak euskaltegiko ikasleen artean. Aurten, C2 mailan diharduen Iñigo Barrena Kortabarria izan da saritua. Argazkian ageri da bera, udal euskaltegiko zuzendari Ernesto Murgiondoren eskutik saria jasotzen.



Argi mozketa, martxoaren 11n

Argindar sarean egin beharreko mantentze eta egokitzapen lanak tarteko, martxoaren 11n, goizeko 7:30etan, argindarra etengo da herri osoan –Oñargiko sare osoari eragingo dio–. Etenak 3 minututik beherako iraupena izango du. Aparatu elektronikoak deskonektatzea gomendatzen da.

Abian da ERRIGORA udaberriko kanpaina

Abian da Errigorako 'Eskutik eskura' kanpaina, Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari eta elikadura burujabetzari bultzada ematea helburu duen ekimena. Urtero lez, Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra eta kontserba sortak eskatzeko aukera dago, martxoaren 18ra arte. Informazio guztia: www.errigora.eus. Aurtengo Korrikak Errigora ekimena omenduko du.

'GOIAZI!' Lanbide Heziketaren azoka, martxoaren 25-26an

Debagoieneko Mankomunitateak eta eskualdeko Lanbide Heziketako zazpi ikastetxeek antolatuta, Arrasateko Kulturateko klaustroan egingo da 18. GOIAZI! azoka, martxoaren 25ean (8:30-14:30 / 16:00-18:30) eta 26an (8:30-14:30). Herriar orori irekia da; ikasle, langabe edo prestakuntza bila dabilen edonori. Informazio gehiago: <https://www.fpdebagoienalh.com/eu/>

Aldaketak artile bilketa zerbitzuan

Landaola elkarteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak artile bilketa zerbitzua eskainiko dute aurtengo ere, baina berrikuntza batzuekin. Bilketa dohainik izango da. Oñatin, zehazki, ekainaren 30ean egingo da bilketa -Urrutuko ekarpen gunean-, baina aurrez izena ematea derrigorrezkoa da, martxoaren 13a baino lehen: 943 11 21 73 / lurraldeoreka@gipuzkoa.eus

Izar bat gehitu zenean zerura

Doinua: Hor bide eguzkitsu bat

1.- Jaiozkero datorkigun
on dena eta txar dena,
biak batera bizia
naiz egun baten barrena,
bizitzako momenturik
onena eta txarrena... (bis)
Eta horrek dakarrena!
Naïpe-dorre bat jaustek
sortzen duen hondamena
iraultzeko bizi behar
izan dudun zoramena
badut lau haizeetara
zabaltzeko ahalmena (bis)
izan dudun zoramena.

2.- Bi mila eta hogeiko
maiatzaren zazpi hura...
Goizeko ordubietan
etorri zinen mundura
eta aldegin zenuen
handik hamalau ordura (bis)
izar bat gehituz zerura.
Erditze lanak amaitu
eta hortik momentura
gela baten bildu ginen
nahi ez genuen modura
agurtzeko hasi baino
egin ez zen abentura (bis)
nahi ez genuen modura.

3.- Bilduta geunden gelako
erlojuaren orratzen
abiadura azkarra
baino azkarragoa zen
eta zu eta ni berriz,
sufritzen eta gozatzen (bis)
zetorkiguna onartzen.
Handik irten eta nahiz ez
naizen ondo gogoratzen
zinderamateneraino
elkarrekin gindoazen,
handik aurrera ere bai
nahiz bakarrik zindoazen (bis)
elkarrekin gindoazen.

4.- Batzuetan triste nago
eta batzuetan alai
baina bi masailak beti
dauzkat negar malkotan blai
dirudienez ez bainaiz
oreka mantentzeko gai (bis)
eta hor erortzen naiz, ay!
Bizitzeko desioa
ate ondoan daukat zai
kate motzean lotuta
txakur baten gisan ernai
ez duena ibiltzera
ateratzea baino nahi (bis)
txakur baten gisan ernai.

5.- Iraganari atxiki
diodalako oraina
oraindik ordaintzen nabil
iraganeko ordaina
bere hortan doluari
hartu nahi bait diot gaina (bis)
izan ez dadin ni haina.
Lurrin usainekoari
dario kirats usaina
betirako den beldurrez
hor geratu zait orbaina
dolua buka dezadan
denbora izan dut baina (bis)
hor geratu zait orbaina.

6.- Negarrez jardun osteko
ezinaren agonia
entzutea nahi duzuna
esateko afonia
bihurtzean, une hortan
hasten den monotonia (bis)
ez da nire sinfonia.
Jaio eta hiltzearen
arteko dikotomia
hortan ez badut aurkitzen
behar dudun sintonia
bidean galdu naiteke
nahiz helmugan egon ia (bis)
behar dudun sintonia.

7.- Maitasunez zizelkatu
nizun lehen begiradan
eman nizun azkena zen
aurreneko besarkadan
iragana oraindik ez
delako nigan iragan (bis)
pausatu naiz lurrikaran.
Iraganak bere hortan
poz bat eman diezadan
nire memorian zaude
arnasa hartu dezadan
bilatzen zaitudanean
bertan aurkitu zaitzadan (bis)
arnasa hartu dezadan.

8.- Hau guztia esatean
lasaiago nago iada
kostata hustua baitut
hainbesteko betekada
itxaropenari keinu
egin nahian beharbada (bis)
le(he)n esan dudun erara
beti izan ahalko dut
zu ikusteko parada,
memorian zauzkadanez
bertan ikusiko gara
edo fede pixkatekin
beste bizitzarik bada (bis)
bertan ikusiko gara.

SARITUTAKO BERTSO SORTA

Urko Egañaren
bertso sorta honek
3. saria jaso du
Mungiako San
Antontxu bertso
parper lehiaketan



JUANJE MARGOAK
627 818 247

 **ARKITEKTURA**

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com



UDALEKU IREKIAK - 2026

Aurtengo Oñatiko udaleku irekiak ate joka dabilta, eta nola ez, Udalekuetako helburu nagusia udalekuak haurren gozamen iturri izatea da beste urte batez.

Ekainaren 29an emango zaie hasiera udalekuei eta Uztailaren 24an itxiko dituzte ateak. Aste hauetan, elkargunea Eltzia izango bada ere, HH3-LH6 bitarteko hurrek Oñatiko kaleak jolas eta irriz beteko dituzte herriko parke eta txoko guztiei bizi eta alaitasuna emanaz. Iazko antolakuntza jarraituz, oraingoan ere, 10.00-13.00 bitarteko iraupena izango dute udalekuek. Horrez gain, kontziliazio arazoak dituzten familiei zuzendutako zaintza zerbitzua antolatuko da, 8.15-10.00 bitartean. Izen ematea, martxoaren 16an zabaldu eta martxoaren 29an itxiko da. Izen emate prozesua online izango da eta www.onati.eus web orriaren bitartez egin beharko da. Zehaztapenak esku orritan, txaloka ludotekako instagramean zein Ludotekako zerbitzu berezian egongo dira eskuragarri. Horretaz gain, aste horietan, Txakola Udal Ludotekak herritarren galdera eta zalantzak erantzuteko zerbitzu berezi bat emango du, modu presentzialean edo telefonoz: martxoak 16-17-18 goizeko 9.00tatik 12etara, eta martxoak 25-26-27, 14.30-16.30 bitartean. Ludotekako ohiko zerbitzua ematen den ordutegian berriz, ez dira udalekuetako galderarik erantzungo.

MATRIKULA: Lehenengo haurra 82,46€, bigarrena +71,01€, hirugarrena + 59,55€, laugarrenetik aurrera doan. ZAINZA: 34,36€ gehiago lehenengo haurra, 22,90€ gehiago bigarrena, 11,46€ gehiago hirugarrena, laugarrenetik aurrera doan. (Guraso bakarrek, familia ugariak eta DSBE-ren jasotzaileek matrikula hobaria edo salbuespena eskatu ahalko dute).

UDALEKU IREKIETAKO BEGIRALEEN KONTRATAZIOA

IZENA EMATEKO EPEA: Martxoaren 16tik 29era. LEKUA: Oñatiko Udaleko Zerbitzu Telematikoetan, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) edo Posta bulego batean. HAZko ordutegia: 07.30-15.30. HEZITZAILEEN FORMAZIO SAIOAK: Ekainaren 20 eta 27an izango dira. Derrigorra izango da formazio saioetara etortzea. BALDINTZAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO: Oñatiko Udaletxean edota www.onati.eus.

ARTE UDALEKUAK - 2026

Aurten ere, hamahirugarrenez, Arte udalekuak antolatuko ditu Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak. Arte Udalekuetan gaztetxoek marrazkigintzan, eskulturan, margogintzan, antzerkigintzan eta abar aritzeko aukera izango dute.

NOIZ: Ekainaren 29tik uztailaren 24ra. ORDUTEGIA: 10:00 – 13:00. ADINA: L.H.5tik DBH4ra (biak barne). TOKIA: Gaztelekuan. MATRIKULA: Lehenengo haurra 82,46€, bigarrena +71,01€, hirugarrena + 59,55€, laugarrenetik aurrera doan. (Guraso bakarrek, familia ugariak eta DSBE-ren jasotzaileek matrikula hobaria edo salbuespena eskatu ahalko dute)

HAURREN IZENA EMATEKO EPEA: Martxoaren 16tik 29ra. IZENA EMATEKO MODUA: Online, www.onati.eus helbidean. Arte udalekuen ezaugarriak direla eta, plaza mugatuak izango dira. Zozketa egin beharko balitz LH5 eta LH6ko kanporatuek Udaleku irekietan izena emateko aukera izango dute.

ARTE UDALEKUETAKO BEGIRALEEN KONTRATAZIOA

IZENA EMATEKO EPEA: Martxoaren 16tik 29ra. LEKUA: Oñatiko Udaleko Zerbitzu Telematikoetan, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) edo Posta bulego batean. HAZko ordutegia: 07.30-15.30. BALDINTZAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO: Oñatiko Udaletxean edota www.onati.eus.

AGENDA: TOPALEKUKO EKINTZAK

- **Martxoak 8:** Mural margoketa eta txapa tailerra

KUBOKO EKINTZAK

- **Martxoak 13:** Txipistinoekin topaketa (sua jolasa)
- **Martxoak 22:** 'La Voz kids' txapelketa

LUDOTEKAKO EKINTZAK

- **Martxoak 9:** Psikomotrizitatea
- **Martxoak 10:** Mahai jolasak
- **Martxoak 12:** Motxilak margotzen
- **Martxoak 13:** Smoothieak
- **Martxoak 16:** Punteria jolasak

GAZTELEKUKO KONTZERTUAK

- **Martxoak 7:** *Pinpilinpussies + Frustration* (12€ / aurrez 10€)

» UDALEKO GAZTERIA BATZORDEAREN ZERBITZU BERRIA

Gazte aholkularitza Psikologikoa

- 16 eta 30 urte arteko gazteei zuzendutako zerbitzua. Dohainik.
- San Juan kaleko 5 zenbakidun lokalean
- Ostegunero, 16:00 - 18:00 (aurrez txanda hartuta)
- 688 815 351 / gazteaholkularitza@onati.eus



San Juan
kaleko 5
zenbakiko
lokalean
ematen da
zerbitzua

Martxoaren 8ko ekintzen antolaketan parte hartu du Emakumion Etxiak Sare Feministarekin batera

Kaixo herrikide!

Martxoak 8an Emakumeon nazioarteko eguna ospatuko dugu eta Oñatiko Sare Feministako kideekin batera, ekintzen antolaketan parte hartu dugu.

Sare Feminista herriko hainbat talde feminista eta eragilek osatzen dugu, besteak beste, Emakumion Etxiak. Etxia udaberrian herritarrei zabaltzeko prestaketa lanetan ari gara hilabeteotan.

Etxian hainbat lan-talde daude, besteak beste, *Saltserak* taldea: herritarrak berdintasunean sentsibilizatzeko ekintzak antolatzea da gure egitekoa. Zu ere saltsera bazara, hau da zure tokia!

Martxoak 8 honetarako, **EGIOZU OMENALDIA!** emakume erreferenteen argazki-erakusketa bat osatu dogu.

Zein dira zure emakume erreferenteak? Izan daitezke emakume ezagunak edo ezezagunak; familiakideak, lagunak, eskubide sozialen alde aritutakoak, kirolariak, irakasleak, dendariak, zaintzaileak, euskal herritarrak zein nazioartekoak...

Herritar guztiei irekitako ekintza izan da: emakume, gizon, haur, gazte zein heldu. Otsailean zehar argazkiak biltzen aritu gara, hainbat eragile, udal eraikin eta eskoletan.

ERAKUSKETA

Batutako argazkiak martxoan zehar erakutsi egingo ditugu dendetako erakusleihoetan, omenaldi gisa.

MARTXOAK 8

Sare Feministatik antolatutako manifestazio eta bazkarian gurekin batera parte hartzera animatzen zaituztegu, baita Berdintasun Sailetik antolatutako ekintzetara ere.

Lagunartean parte hartzeko interesa izanez gero idatziguzu berdintasuna@onati.eus helbidera.

Izan parte!



ERAKUSKETA / 'EMAKUME ERREFERENTEAK'

» Batutako argazkiak martxoan zehar erakutsiko ditugu dendetako erakusleihoetan, omenaldi gisa

Erdiguneko zuhaitz eta zuhaixkak

Egunero ikusten ditugu zuhaitz edo zuhaixkak: eskolara, lanera, okindegira zein osasun zentrorra bidean, edota etxeko leihotik kanpora begiratzen dugunean. Zortedunak gu! Izan ere, gure herrigunea kolore biziz jazten duen landaretza horrek biodibertsitatean eta ekosistemetan duen garrantzia eta gizakiongan duen eragina positiboa dela frogatua dago.

Hasteko, ezin aipatu gabe utzi zuhaitz eta zuhaixka horiek erdiguneko biodibertsitatea aberasten dutela; beste hainbat izaki bizidunentzat bizilekua zein elikagaia eskaintzen baitute: txori, ugaztun txiki edota zomorroentzat, kasu.



Erdiguneko zuhaitzek aireko tenperatura 2-8 gradu jaisten lagundu dezakete, eta airearen kalitatea hobetzen dute, iragazki bikainak baitira kutsatzaileentzat

Gainera, zementuzko herrigunea berdetu, bizigarriago egin eta tenperatura erregulatzen ere berebiziko garrantzia dute; herriguneko zuhaitzek aireko tenperatura 2-8 gradu jaisten lagun dezakete! Hori horrela, asko dira birnaturalizatzen hasi diren hiriak.

Hori gutxi balitz, airearen kalitatea hobetzen dutela ere jakina da, iragazki bikainak baitira kutsatzaileentzat, eta hautsa, kea edota partikula finak hostoetan zein azaletan harrapatzen dituzte. Are gehiago, soinu-kutsaduraren aurrean ere babesten gaituzte.

Zuhaitz helduek ur-emia erregulatzen dute. Uholdeak ekiditen eta hondamendi naturalen arriskua murrizten garrantzi handia dute. Hosto iraunkorreko zuhaitz heldu batek urtean 15.000 litro ur baino gehiago harrapa ditzake!

Azkenik, geroz eta ohikoagoak diren estresa, hipertentsioa... gutxitzen dutela ikusi dute zientzialariek, eta herritarron ongizatean laguntzen dutela.

ESKER ONEZ

Otsailean, hainbat herritar erdiguneko zuhaitzak identifikatzen ibili ginen, Lazarraga eta Santa Anako lorategietan, batez ere. Gerturatu eta egindako lana behatzera gonbidatzen zaituztegu.

Eskerrik asko igande hartan parte hartzera animatu zineten herritar guztioi!

HERRIGUNEAN DAUDEN ESPEZIE BATZUK EZAGUTU NAHI?

> **EZKIA.** *Tilia* generoko zuhaitz hostogalkorrak dira eta 20-40 m altu izan dezakete. Zuhaitz honen loreekin ezaugarri lasaigarriak dituen "tila" edo ezki-ur infusioa egiten da.

> **HALTZA.** Espezie hau eskualde hezeetan hazten da. Erreka ertzetan aurki dezakegu, edota hezetasun handiko lurzoruetan. Oñatin, erreka bazterreko basoak eratzen ditu, haltzadiak. Neguan loratzen da. Ziur gehienok loretan ikusi duzuela!

> **HAGINA.** Santa Anako parkean umeen jolasleku, egun; gure arbasoen batzar eta gurtza toki, antzina; Gipuzkoako armarriko elementu inportantea; sinbolismo handiko zuhaitza dugu hagina. Pentsa, "aginte" hitzaren jatorria ere bertan legoke! Kontuz, baina! Ez jan, zuhaitz ia osoa toxikoa baita!

> **URKIA.** Azal kolore zuri eta arrakalatuengatik erraz ezagut daiteke.

> **MAGNOLIA.** *Magnolia grandiflora* espezieak Ameriketan du bere jatorria, baina ohikoa da Euskal Herriko hainbat lekutan landatuta aurkitzea. Oñatin, herriko plazan zein Etxaluzen aurki dezakegu, adibidez. Magnoliak, erleak agertu aurretik garatu omen ziren, eta, horregatik, loreak kakalardoek polinizatzeko egituratuta daude. Lore handi eta ikusgarriak sortzen dituzte.

> **KONSTANTINOPLAKO AKAZIA.** Herriko plazan aurki ditzakegu, besteak beste. Ponpoi itxurako lore arrosek apaingarritarako zuhaitz ezin hobea egiten dute, loraldian ikusgarria baita, zinez.

> **LIKIDANBARRA.** Kurtzebide eta San Lorentzon daude, esaterako. Udazkenean hartzen duen kolore hori, laranja, gorrixkagatik ezagutzen dugu askok, seguru, 3-7 lobulu bitarteko hostoak sortzen ditu. Fruitu borobilak izaten ditu eta negu osoan egoten dira ikusgai.

Aloña Mendiko Gimnasia Erritmikoak 35 urte betetzen ditu aurten

> Martxoaren 28an erakustaldi berezia egingo dute, urteurrenari hasiera emateko.

> Koreografia ezberdinen bidez erakutsiko dituzte gimnasia erritmikoko sailaren ezaugarri eta baloreak.



2026a urte berezia izango da Aloña Mendiko Gimnasia Erritmikoko sailarentzat, 35 urte betetzen baititu. Martxoaren 28an emango diote hasiera urteurrenari, gimnasia erakustaldi berezi batekin. Aurrerago ekitaldi gehiago antolatzeke asmoa ere badute, urteurrena behar bezala ospatzeko. Klubeko arima den Lide Osinagak eman digu guztiaren berri.

Urte berezia, aurtengoa?

Bai, Aloña Mendiko gimnasia sailak 35 urte betetzen ditu eta urte osoan zehar ekitaldi ezberdinak antolatuko ditugu, merezi duen moduan ospatzeko.

Lehenengo ekitaldia martxoaren 28rako iragarri duzue. Zer izango da?

Gimnasia ikuskizun berezia egin nahi dugu. Ez da ohiko erakustaldia izango. Asmoa da, koreografia ezberdinen bidez Aloña Mendiko Gimnasia Erritmikoko saila zer den, nor garen, eta kirol honek biltzen dituen baloreak erakustea, gure gorputzen mugimenduen bidez. 35. urteurrenari hasiera emango dion ekitaldia izango da, Zubikoa pilotalekuan, 18:00etan.

Ekitaldi gehiago etorriko dira gero, ezta?

Bai, *Master class* bat antolatu nahi dugu, baina guztiz lotu barik daukagu oraindik, izen handiko gimnasta bat ekarri nahi dugulako. Erakusketa



Lide Osinagak 15 urtetik gora daramatza entrenatzaile lanetan

"Gimnasia erritmikoa oso osasuntsu dago Oñatin. Gaur egun 110etik gora neskatala ditugu eta hori kopuru handia da gurea bezalako sailk txiki batentzat"

bat ere antolatu nahi dugu, 35 urte hauetako argazkiekin, musikal edo ikuskizun berezi bat prestatzeko asmoa ere badugu, eta herriko plazan erakustaldi bat egitekoa ere bai. Ideia asko ditugu, baina zehaztu edo guztiz lotu gabe oraindik.

Nola iristen da Aloña Mendiko gimnasia saia 35. urteurrenera?

Sendo eta oso osasuntsu. Une honetan 110etik gora neska ditugu, 4 eta 16 urte artekoak, eta hori kopuru oso polita da, kontuan hartuta gurea sail txikia dela eta ez daukagula beste batzuek duten ikusgarritasunik. Pozik gaude.

Eta guztien arduradun Lide. Zenbat urte daramatzazu entrenatzaile lanetan?

Hamabostetik gora. Lau urte bete aurretik hasi nintzen Aloña Mendiko gimnasia taldean, Adelaida Silvarrekin. Handik urte batzuetara Visición Gutierrez 'Visi'k hartu zuen Adelaidak utzitako lekua, eta ni, poliki poliki, hari laguntzen hasi nintzen, gimnasiako entrenatzaile titulua atera ostean; haur txikienekin aurrena, eta, pixkanaka, talde guztien ardura hartu arte, duela 15 bat urte edo gehiago.

Zorionez, ez nago bakar bakarrik. Naiara Apaolaza laguntzera etortzen da eta, gainera, beti laguntzeko prest dauden lau ama ere badaude, eta eskerrak! Ezinbestekoa da beraien laguntza, bestela, ezinezkoa litzateke urtean zehar antolatzen ditugun hainbat ekitaldi aurrera ateratzea pertsona baten edo biren artean. Laguntza sare hori oso inportantea da niretako, beti hor daudelako eta badakit, modu batera edo bestera, denon artean gauzak aurrera aterako direla.

Aloña Mendiko gimnastek ez dute lehiaketetan parte hartzen. Zergatik?

Gure filosofia edo helburua da hona datozen neskatala eta mutikoei ikas dezatela lehiatu barik ere disfrutatu daitekeela gimnasiarekin, eta uste dut lortzen dugula, ez dutelako lehiatzeko egarri izaten. Gure garaian urtean bi erakustaldi soilik egiten ziren –Gabonetan eta

ekainean-, baina, gaur egun, ikasturtean zehar beste hainbat ekitaldi ere –campusa, musikalak, tailerrak, irteerak txapelketaren bat ikustera...– antolatzen ditugu, eta, egia esan, eguneroko lanarekin disfrutatzen ohitu dira eta, oraingoz behintzat, ez dute lehiarako egaririk adierazi. Gure erronka da orain DBHko adinean ere jarrai dezatela gimnasia praktikatzeko, eta ahalegin berezia egiten ari gara ildo horretan.

Azkenaldian herriko kultur eta kirol talde ezberdinekin kolaboratzen ere ari zarete, gainera.

Hala da, bai. Duela hilabete, adibidez, Bidasoa eta Arandaren arteko eskubaloia partiduko atsedenaldian aritu ziren gure neskak. Iaz GBCren partidua batean ere egon ziren, Oñatiko musika bandarekin ere egin izan ditugu kolaborazioak, eta Oñatiko nahiz Aretxabaletako zaharren egoitzetara ere joaten gara, besteak beste.

Zer ematen dizu gimnasia? Zergatik gomendatuko zenuke gimnasia erritmikoa praktikatzeko?

Nik ez dakit gimnasia barik egoten. Badakit *friki* samarra naizela, baina askotan esan ohi dut tapiz barik egoten ez dakidala. Udako bi-hiru hilabeteetan, adibidez, oso arraro sentitzen naiz. Ikaragarri gustatzen zait.

Uste dut gimnasia erritmikoa kirol oso berezia dela, oso artistikoa. Ohiko kirolek, dituzten balioez gain (kiroltasuna, esfortzua, talde-lana...) beste extra asko dauzka: gorputz espresioa, musika, erritmoa... Kanpotik, beharbada, ez da ikusten, baina gimnastek tapizean egiten dituzten ariketa eta koreografiak atzean lan handia dago. Beraz, edonor animatzen dut hona etortzera, ikustera eta probatzera. •



ESKALADA TXAPELKETA

Agirre eta Erostarbe nagusi



Urtero lez, inaute zapatuarekin batera jokatu da aurtengo Oñatiko Eskalada Txapelketa, XIX.a, Zubikoako boulderrean. Denera, 47 lagunek eman zuten izena –mozorrotuta joatea izaten da baldintza– eta igo-bide ezberdinak kateatzen ahalegindu ostean, Jon Agirre eta Ane Erostarbe izan ziren irabazleak. Maria Balzategik eta Maddi Azkorbebeitiak osatu zuten podiuma emakumezkoetan; Daniel Txintxurretak eta Martxel Gerekek mutiletan. Ohi bezala, urte, zilar eta brontzezko katu-oinak jaso zituzten sari sinboliko gisa, eta txapelketa borobiltzeko Zañartuko elkartearen batu ziren bazkaltzera.

MENDI IRTEERA / MARTXOAK 15

ENTZIA MENDIKATEA

Aloña Mendik martxorako antolatu duen irteera Araba eta Nafarroa arteko mugan dagoen Entzia mendikatean barrena izango da. Andoin herritik abiatuta, Toberiaiko ur-jauzien ondorik igaroko dira, Legaireko goiko lautadara igotzeko. Mendiluzeko kromlech ikusgarria atzean utzi ondoren, *Mirutegi* (1.165m.) eta *Baio* (1.197m.) tontorak igoko dituzte eta, azkenik, Zalanportilloko arkutik pasa eta Donemiliaga Durrumara jaitsiko dira. Guztira, 15,5 km.-ko ibilaldia (+750m.) 6 ordu ingurutan egiteko modukoa. Ez du zailtasun teknikorik.

Irteera, goizeko 7:00etan, postetxe parean. Izena emateko epea: **martxoak 5-12**, alonamendi.mendi@gmail.com helbidean, autobusa bete arte (50 leku). Prezioa: 10€, autobusean ordaintzeko. Parte hartzeko federatuta egon behar da.



Mirutegi (1.165 m.) gaina (Arg.: DV)

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuen fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



ALOÑA MENDI-ESKUBALOI SAILAREN 50. URTEURRENA



ESTHER ARROJERIA, Bera Bera taldeko jokalaria ohia, eta Realean ari den **ELENE GURIDI** oñatiarra izango dira hizlarietako bi. Hirugarrena guztiz konfirmatu gabe zegoen aldizkaria ixteko garaian.

'Emakumeak eta kirol profesionala'

MAHAI-INGURUA / Martxoak 11, asteazkena-Santa Ana aretoan, 18:30

50. urteurreneko ekitaldiekin jarraituz, martxorako mahai-inguru interesgarria antolatu du Aloña Mendiko Eskubaloia sailak. Hiru kirolari profesional, horietako bat ohia –Esther Arrojeria, iaz arte Bera Bera eskubaloia taldeko kapitaina izandakoa eta, besteak beste 8 liga txapelketa irabazitakoa– eta bestea etxekoa, Elene Guridi, jardunean den Realeko futbol jokalaria. Hirugarren bat ere etorriko da, baina guztiz konfirmatu gabe zegoen aldizkaria ixteko orduan. Emakume izateagatik ibilbide profesionalean izan dituzten baldintzez, eta kirola utzi ostean egunerokotasunera bueltatzeko eduki dituzten arazoez berba egingo dute, besteak beste. Mahai-ingurua dohainik izango da, aretoa bete arte.

BERA BERA ETA ZUAZO, AURREZ AURRE OÑATIN

Hurrengo hitzordua, berezia hau ere, Bera Bera eta Zuazo taldeen arteko partidua izango da. Espainiako Ohorezko Mailan diharduten bi euskal taldeak aurrez aurre ikusi ahal izango ditugu Zubikoa kiroldegian.

AURRE-SALMENTA: Partidua apirilaren 10ean izango da Zubikoa kiroldegian (19:00), baina sarrerak (5€) aurrez eskuratzeko aukera egongo da martxoaren 24tik aurrera, Aloña Mendi tabernan.



TXIRRINDULARITZA SAILA DENBORALDIARI EKITEKO PREST. Otsailaren 21ean aurkeztu zituen Aloña Mendik aurtien errepidean izango dituen txirrindulari taldeak. Bizipoz eta ULMaren babesarekin, ia 50 txirrindulari arituko dira, guztira. Horietako batzuk beste klub batzuekin lehiatuko dira: Kadete mailan Ane Atorrasagasti (Zu Limousin); Junior mailan Izar Eskibel (Igamo Packaging-Lokatza) eta Oihan Irizar eta Aitor Murguzur (Bellota Goierri); eta afizionatueta Aimar Erostarbe (Smartlog).

MARTXOAREN 14an OÑATIN. Eskolarte mailako txirrindulariak (Benjamin, Alebin eta Infantil mailakoak) Oñatin ikusteko aukera izango dugu martxoaren 14an, Aloña Mendik antolatuta.

Alonso eta Korta podiumean



MENDIKO ESKIA Asier Alonso podiumeko 3. kokara igo zen otsailaren 7an jokatu zen Bandres Karolo Memorialean -Euskal Herriko Txapelketa-. Azpimarratzekoa, bestalde, Kimetz Korta gazteak 'B' ibilbideko sailkapen nagusian lortutako lehen postua

Domina ugari neguko Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan

IGERIKETA Otsailaren 21ean Zarautzen jokaturako neguko sarian. Junior/Senior mailan **Aiert Sologaitz** garaipena lortu zuen 100 Krolean (1:01.93) eta 200 Bizkarrean (2:40.61). **Nora Aranegi** ere azkarrena izan zen 200 Bizkarrean (2:49.99). Infantil mailari dagokionez, **Mikel Oruetak** garaipena lortu zuen 50 Bizkarrean (36.44) eta bigarren sailkatu zen 100 Bizkarrean (1:19.05). **Ada Biliar** bigarren sailkatu zen 100 Bularrean (1:35.62).

Bestalde, otsailaren 28tik martxoaren 1era Faturan (Getxo) jokatu ziren Euskal Herriko Infantil mailako txapelketan, azpimarratzekoa **Alix Ojea** 200 Tximeletan (2:41.34) lortutako urrezko domina; 50 metrokoan (31.78) 3. sailkatu zen. **Julen Pedregal** 3. sailkatu zen 100 Bularrean (1:23.93) eta 200 Estiloetan (2:35.66), eta 4. postuan 50 eta 100 Bizkarrean. **Xabi Galdos** ere 4. sailkatu zen Kroi erako 800 eta 1.500 metroko probetan.

Ahozko tradizioz onenaz gozatzeko aukera udal liburutegian

'AHOZ AHO' jaialdiaren bitartez, **André Roldán** kolonbiarrak eta **Aldo Mendez** kubatarak ipuin kontaketa saio bana eskainiko dute martxoaren 11n eta 26an



Roldanen saioa martxoaren 11n izango da, helduentzat, eta Mendezena hilaren 26an, haurrentzat.

AHOZ AHO-Ahazkotasunaren Nazioarteko Jaialdiaren 19. edizioa abian da otsailaren 16az geroztik. Martxo amaiera bitartean 50 saio eskainiko dituzte Euskal Herriko zein nazioartetik etorritako 30 kontalarik. Ekitaldi gehienak Tolosan eta Ordizian dira, bertan hasi eta hazi baitzen jaialdia, baina urtetik urtera gero eta herri gehiago batu dira hitzaren festa honetara –Oñati 2020an batu zen zirkuitura– eta gaur egun 17 herritara zabaldua dago, Euskal Herriko kontalaritza jaialdirik erreferentzialena bihurtu delarik. Aurten Espainia, Kolonia, Grezia, Italia, Kuba eta Perutik etorritako artistek parte hartuko dute, eta horietako bi Oñatira ere etorriko dira, udal liburutegiaren eskutik.

'MUJERES DE MAR Y MAMEY', HELDUENTZAKO SAIOA

André Roldán kolonbiarrak helduentzako ipuin kontaketa saioa eskainiko du **martxoaren 11n** (zine aretoan, 19:00). Egun Madrilen bizi den artista hau Kolonbiako mendikateko herri txiki batean jaio zen eta gaztetan oso maite izan zituen kontatzeko moduak eta ahozko narrazioa. Ipuin kontalaria

ez ezik, argazkilaria ere bada, eta istorioak kontatzerakoan argazkilaritzak ematen dizkion aukerak baliatzen ditu.

Mujeres de Mar y Mamey ikuskizunean Kolonbiako egunerokotasuna eta lurraldea arakatzeko duten istorioak kontatzen ditu, lurralde eskuzabal bateko emakumeen bizitzak nabarmenduz, emakume horien kultura- eta bizipen- aberastasunean oinarrituta.

'¿Y SI PIDO QUE ME CUENTES?', HAURRENTZAKO SAIOA

Aldo Mendez kubatarak haurrei (LH1etik aurrera) zuzendutako ipuin kontaketa saioa eskainiko du –gaztelaraz–, **martxoaren 26an** (Haur liburutegian, 18:00). Izen-ematea hilaren 16tik aurrera. Mendezek Filosofia ikasketak egin zituen Moskun eta 1994az geroztik dihardu istorio harrigarriak kontatzen mundu osoan zehar. **¿Y si pido que me cuentes?** kontaketa saioa alaitasuna defendatzeko gonbidapen bat da, saio jostari eta musikala. Hitzarekin eta bere azentuekin, bere taupadekin jolasten du; esaten duenarekin eta iradokitzen duenarekin; errearekin, irudimenarekin, asmatzearekin.



TERTULIXAN SAIO IREKIA

Udal liburutegiko 'Tertulixan Komikia Gaztelaniaz' taldeak antolatuta, **Everest: todo un pueblo en la cumbre** nobela grafikoari buruzko saio irekia egingo da, nahi duten herritar guztientzat, **martxoaren 24an** (liburutegian, 18:00). Komikiaren egileek –Ramon Olasagasti eta César Llaguno– eta Felipe Uriartek parte hartuko dute.



ETXiAN
Inmobiliaria

Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net



carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

ATE IREKIAK ETA BI KONTZERTU EDER

Oñati Abesbatzaren 60. urteurrena ospatzen jarraitzeko

- > Oñati Abesbatzaren **entsegu bat** bertatik bertara ikusteko aukera egongo da martxoaren 12an
- > Esteban Urzelai gidatzen duen **Suhar** koruak kontzertua eskainiko du martxoaren 14an
- > Donostialdeko **Ibaiertz** korua eta **Oñati Abesbatza** elkarrekin ariko dira martxoaren 26an

Honezkero jakingo duzuen moduan, Oñati Abesbatzak 60 urte betetzen ditu aurten, eta hori ospatzeko urte osoan zehar gauzatuz joango den egitaraua prestatu du. Eta martxorako hiru ekitaldi berezi programatu dituzte. Batetik, ate irekien jarduna egingo dute martxoaren 12an, Agustindarren elizan, 19:30etan. Entsegu irekia izango da, eta kantatzea gustuko duten herritar guztiak daude gonbidatuta. Entseguak nolakoak diren ikusi eta, animatuz gero, koruko kideekin batera kantatzeko aukera ere egongo da. Ez da beharrezkoa partiturak irakurtzen jakitea. Beso zabalik hartuko zaituztete. Animatu!



ATE IREKIAK / MARTXOAK 12, AGUSTINDARREN ELIZAN, 19:30

"Zatoz Oñati Abesbatzaren entsegu bat ikustera eta, animatuz gero, elkarrekin kantuan egitera"

BI KONTZERTU EDER

Goi mailako bi kontzertuz gozatzeko aukera ere izango dugu martxoan. Alde batetik, Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen **Suhar** gizonen koruak abestuko du hilaren 14an, Bidaurretako monasterioan (19:30), eta, bestalde, martxoaren 26an Loiola/Martuteneko **Ibaiertz** abesbatzak elkartrukeko kontzertua eskainiko du Oñati Abesbatzarekin batera, Agustindarren elizan (19:30)

Oñati Abesbatzak herritar guztiei irekitako saio bat antolatu du. Zehazki, abesbatzaren entsegu bat bertatik bertara ikusteko gonbita luzatzen diete nahi duten herritar guztiei. Martxoaren 12an izango da entsegu berezi hau, Agustindarren elizan (19:30).

Bi helburu nagusi ditu ate irekien saioak: batetik, korua eta bere eguneroko funtzionamendua ezagutzera ematea, eta, bestetik, kide berriak erakartzea. Gaur egun 45 ahotsak osatzen dute taldea, baina 60. urteurrenako ospakizuna baliatu nahi dute jende gehiago erakartzeko eta etorkizunera begira proiektua sendotzeko. Beraz, kantatzea gustatzen bazaizu, hauxe da zure lekua. Ez kezkatu musika irakurtzen ez badakizu; musikarekiko duzun maitasunak, ikasteko gogoak eta taldearen laguntzak erraztuko dizute bidea. Gonbita eginda dago. Animatu!

Gainera, esperientzia polita izan daiteke bertaratzen direnentzat. Entseguak nolakoak diren ikusteaz gain, abesbatzako kideekin batera Xabier Leteren 'Habanera' abestia bi ahotsetara kantatzeko aukera izango dute. Horretarako, partitura eta 2 ahotsen grabaketa bana prestatu dituzte. Ondoko QRren bidez deskargatu daitezke, edo erosoagoa bada, Whatsapp bidez (603 377 902) ere eska daitezke.



Soprano-tenorra



Altu-baxua



Partitura

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/ FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop



ESTEBAN
URZELAI
Suhar koruko
zuzendaria

**"Hunkigarria izango da
Oñati Abesbatzaren
urteurrenean abestea"**

Esteban Urzelairi Ilusio be-
rezia egiten dio Oñati Abes-
batzaren 60. urteurrenean
parte hartu ahal izatea, "ni
neu ere bertan hasi nintzelako
kantuan, mutikoa nintzela".
Aita Madinaren obra batzuk
eta *Bako* jainkoarekin lotura
duten beste zenbait doinu ere
abestuko dituzte.
Une honetan uda partean Tai-
wanera eta Filipinetara egingo
duten bidaiarako erreperto-
rioa prestatzen ari dira, eta
horietako kanta batzuk ere
abestuko dituzte lehen aldiz.
Suhar abesbatzak Tolosako
lehiaketa entzutetsuko sari
guztiak irabazi zituen 2023an.

**SUHAR koruaren
kontzertua**

MARTXOAK 14, BIDAURRETAN, 19:30

Zuzendaria: **ESTEBAN URZELAI**
Piano jotzailea: **AMAIA ZIPITRIA**

- *Aita Gurea* - F. Madina
- *Agur Maria* - F. Madina
- *Sanctus* - S.D. Sanström
- *Herr, lehre doch mich* - R. Mauersbergher
- *Otche nash* - A. Makor
- *The last words of David* - R. Thompson
- *Hiru gaukantu euskaldun eta tabernako*
abesti bat - J. Mäntyjärvi
 - *Ilargia, iturria*
 - *Emakume bat ikusi dut*
 - *Zure begiak maite ditut*
 - *Ardotxo txuria*
- *Tabernari andrea* - F. Madina
- *Irairon* - D. Azurza
- *Ipar haize hotz zuria* - X. Sarasola
- *Wana Baraka* - S. Kirchner

(*) Amaieran borondatea eskertuko da

**IBAIERTZ (Loiola/Martutene)
eta OÑATI ABESBATZA**

MARTXOAK 26, AGUSTINOETAN, 19:30

OÑATI ABESBATZA (Zuz.: Mirengu Plazaola)

- *Ave Verum* - W.A. Mozart
- *Agur Maria* - F. Madina
- *El reloj* - R. Cantoral (Mold.: J.L. Blasco)
- *A tu lado* - J. Busto eta M. Antón
- *A la fuente del olivo* - L. Bedmar
- *Azokan* - F. Madina
- *Akerra ikusi degu* - F. Madina
- *Beti eskamak kentzen* - F. Madina

IBAIERTZ (Zuz.: Josu Elberdin)

- *Oi edertasun guztien* - J. Busto
- *Omnia vincit amor* - j. Estes
- *Eres tú* - Mold.: J. Elberdin
- *Chiquitita* - Mold.: J. Elberdin
- *Sehaska kanta* - Mold.: I. Otaño
- *Kenna yo morena* - Herrikoi afrikarra
- *Por esto cantamos juntos* - J. Elberdin

IBAIERTZ ETA OÑATI ABESBATZA

- *Habanera* - X. Lete (mold.: J. Elberdin)
- *Xalbadorren heriotzean* - X. Lete

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

Goi Mailako

Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industrial
- | Automatizazio eta Robotika Industrial

Espezializazio ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa
- | Eragiketa-teknologiaren Inguruneetako Zibersegurtasuna

mondragon.edu/lanbideheziketa

**TALENTU
PROFESIONALA**

eskolatik - industriara

ATE IREKIAK

11:00etan



**Apirilak 5
Maiatzak 10**

664298683 // 664298704

Musikak eta txotxongilo antzerkiak bat egingo dute musika bandaren martxoko kontzertuan

> **Ostomila Txotxongilo Taldea** izango da gonbidatua eta Euskal Herriko mitologiaren eta tradizioen unibertso magikoan murgiltzeko aukera izango dugu

> 'Emozio txikiak' izenburupean, familia osoari zuzendutako ikuskizuna izango da, **martxoaren 15ean**



▲ **Banda Gazteko** kideek ere parte hartuko dute musika bandaren denboraldiko 4. kontzertuan, martxoaren 15ean, Zubikoa pilotalekuan (13:00)



Musika bandako kideak moztortuta, iazko emanaldian



Ostomila Txotxongilo taldeko Ruben Mejutok eta Zoa Tamarak parte hartuko dute kontzertuan

Oñatiko Musika Bandak denboraldiko 4. kontzertua eskainiko du martxoaren 15ean (Zubikoa pilotalekua, 13:00). 'Emozio txikiak' du izenburua, eta kontzertu formatutik harago doan proposamen berezia eta diziplina anitzekoa eskainiko du, Ostomila Txotxongilo Taldearekin batera, *Alaia Galtzagorria: Mitoen Bidaia* ipuinean oinarrituta. Familia osoari zuzendutako ikuskizun honek musika, ahazkotasuna eta txotxongilo antzerkia uztartzen ditu, entzuleei Euskal Herriko mitologiaren eta tradizioen unibertso magikoan murgiltzeko aukera emanez. Esperientzia artistiko osoa, emozioz eta irudimenez betea. Aukera paregabea izango da etxeko txikiek zein helduek gure arbasoen mitologia ezagutu eta musika tradizionalera gerturatzeko.

EGITARAU OSOA (27:40)

- *El Caserío, Preludio 2º acto* - J. Guridi (5:40)
 - *Diez melodías vascas, Mov 1* - J. Guridi (1:20)
 - *Amaya ezpata dantza* - J. guridi (3:30)
 - *Nere herriko neskata maite* - Arr. I. Urkizu (4:00)
 - *Gerradantza* - Oskorri, Arr.: A. Briz (1:30)
 - *Gipuzkoatik buelta* - Oskorri, Arr.: A. Briz (1:30)
 - *Iratxoa* - E. Ugalde, Orkestrazioa: A. Briz (5:10)
 - *El Caserío, Canción del Bertsolari* - J. Guridi (5:00)
- 6/8 Allegro - Final de Fantasía

ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiaitui Kortabarria
Irakaslea

Arantzazuko Ama, 3 behea

943 53 36 57

20560 OÑATI (Gipuzkoa)

4sgoiena@gmail.com

www.4sgoiena.com

'ANIMALIEN INAUTERIA' familia osoarentzako kontzertu sinfonikoa

MARTXOAREN 14AN, SANTA ANA ANTZOKIAN (12:00)

Ganbara Faktoriaren baitan sortutako Aequus Ensemble orkestrak familiei zuzendutako kontzertu sinfoniko berezia eskainiko du martxoaren 14an (Santa Ana, 12:00). Camille Saint-Saëns musikagile frantziarraren lan ezagunenetako bat taularatuko du: **Animalien Inauteria** (*Le Carnaval des Animaux*). Umorea, ironia eta irudimena uztartuz, animalien unibertso koloretsua (lehoia, dortoka, elefantea, hegaztiak, zisnea...) irudikatzen duen obra berezia da, orkestrazio aberats eta ñabartuekin. Aukera bikaina eskaintzen du instrumentu bakoitzaren nortasuna eta adierazkortasuna gertutik ezagutzeko, betiere tonu dibertigarri eta hurbilean. Kontzertuan zehar Miel Guridik narratzaile lanak egingo ditu, obrako pasarteak testuinguruan jarritz, emanaldiari dimentsio literario-pedagogikoa erantsiz.

PASE BEREZIA MUSIKA ESKOLAKO IKASLEENTZAT

Emanaldiaren aurretik, Aequus Ensembled musikariak eskolako ikasleei zuzendutako pase itxi bat eskainiko du, instrumentu ezberdinak gertutik ezagutu eta bakoitzaren ezaugarrien inguruko azalpenak entzuteko, jolas, asmakizun eta dinamika didaktikoen bidez.

Sarrerak (5€) www.oñati.eus webgunean eta Txokolateixan eskura daitezke, eta kontzertura joaten diren guztiek opari berezi bat jasoko dute. Aukera paregabea familia giroan musika sinfonikoaz gozatzeko, irudimena pizteko eta klasiko handi bat modu atsegin eta hurbilean ezagutzeko.



Ganbara Kantu Eskola KANTARI

Martxoak 6, Santa Ana (19:30)


Ganbara Kantu Eskolak udaberriko kontzertua eskainiko du martxoaren 6an, ostirala, Santa Ana antzokian, 19:30etan. Kantu Eskolako talde ezberdinek parte hartuko dute bertan:

- **Ganbara Txiki** (Zuz.: Aitor Biain)
- **Hasiberriak** (Zuz.: Aitor Garitano)
- **Ikastetxeak Kantari** (Zuz.: Nerea Parra)

Talde bakoitzak bere errepertorioa eskainiko du banaka, eta kontzertua borobiltzeko guztiek elkarrekin bi kanta abestuko dituzte. Pianoarekin laguntzen Eli Mendiaraz ariko da.

Sarrerak www.oñati.eus webgunean daude eskuragai 5 eurotan.

Gipuzkoako Abesbatzen Topaketan parte hartuko dute Ganbara Txikiko kideek



Alaitz Urkiak eta Aitor Biain-Bidartek eramango dute zuzendaritza musikala

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatuta, martxoaren 28 eta 29an Hondarribiko aterpetxean egingo den **Gazte Topaketan** Oñatiko Ganbara Txikiko 10 ikaslek parte hartuko dute **'Kantuan Dantzan-3'** izeneko programa berezi eta dinamikoan.

12 eta 18 urte arteko gazteei zuzendutako topaketa honetan dantzarekin lotura duten pop-rock estiloko euskal abesti ezaugarriak landuko dituzte, hala nola: *Dap Dap* (Janus Lester), *Sumendiak* (ETS), *Eguzkilo* (Zetak), *Ezer ez da berdina* (Bulego), *Aske maitte* (Gatibu) eta *Negua joan da ta* (Zea Mays), moldaketa bereziekin.

Topaketa borobiltzeko partaide guztiek kontzertu irekia eskainiko dute igandean (16:30) Erreterriako Lekuona Fabrikako auditorioan, rock talde baten laguntzarekin. Musika, elkarbizitza eta esperientzia aberasgarri betetako asteburua izango da.

● OÑABIKE
est. 95

'Emakumeek Idatzia-2026' ANDEREÑOEN OMENEZ

Hots Abesbatzak Emakumeen Nazioarteo Egunean eskainiko duen kontzertuan andereñoek gure gizartean izan duten funtsezko ekarpenaren aitortza egingo du

'Faktoria Soziala' ekimenaren baitan, emakumeek gizartean egin duten ekarpenari ikusgarritasuna ematea eta, bide batez, emakumeek konposatutako musika balioan jartzea da HOTS Abesbatzak urtero egiten duen **'Emakumeek Idatzia'** kontzertuaren helburua. Aurtengoan andereñoek egingo die omenaldia, belaunaldiz belaunaldi hezkuntzaren, hizkuntzaren transmisioaren eta zaintzaren bidez komunitatea eraiki duten emakumei. **Martxoaren 8an** izango da emanaldia, Santa Ana aretoan (18:00), dohainik, aforoa bete arte.

LAU ATAL

Kontzertuak lau bloke tematikotan egituraturako ibilbide artistikoa proposatzen du, musika korala, pianoa, narrazioa eta irudia uztartuz –Oñatiko eskoletako hainbat irudi zahar erabiliko dira–.

1. blokea: Hasiera

Lehen blokeak eskolaren lehen oroitzapenetara eramango gaitu. Irudi zaharren bidez (eskola txikiak, arbelak, koadernoak) andereñoaren figura sustrai gisa aurkeztuko da: etxetik kanpo entzuten dugun lehen ahotsa, gure izena lehen aldiz modu kontzientean ahoskatzen duena, mundua begiratzen eta ulertzen erakusten diguna.

2. blokea: Irakasteko modua - Zaintzea

Bigarren blokean zaintzaren balioa jarriko da erdigunean. Irakastea ez baita soilik edukiak transmititzea; askotan, malkoak lehorteza, konfiantza eraikitzea eta haur bakoitzaren erritmoa errespetatzea ere bada. Andereñoek egunerokoan egindako lan isila eta eraginkorra omenduko da.

3. blokea: Hizkuntza, identitatea, etorkizuna

Hirugarren blokeak andereñoen papera azpimarratuko du hizkuntzaren eta nortasun kolektiboaren transmisioan. Berezi euskararen testuinguruan, irakastea askotan ausardia-ekintza ere izan dela gogoraziko da: hizkuntza bat defendatzea, kultura bat bizirik mantentzea eta etorkizunari begira belaunaldi berriak prestatzea.

4. blokea: Esker ona

Azken blokean, omenaldiak tonu intimo eta esker onekoa hartuko du. Gaur egun gure artean ez dauden andereñoak gogoratuko dira, bai eta lanean jarraitzen dutenak ere. Belaunaldi askoren bizitzetan izan duten eragin sakona aitortuz; ikastea maitasun ekintza bat ere badela erakutsi digutelako.

Kontzertuan askotariko konpositore eta estilotako musika entzuteko aukera egongo da, hala nola: *I Remember* (S. Quartet), *Elementuen kantak* (Eva Ugalde), *Etxean* (Junkal Guerrero), *Itsasoa ari zait* (Idoia Asurmendi)... Narratzaile lanetan **Arrate Kortabarria** ariko da, blokeen arteko hari diskurtsiboa ehunduz, eta piano-jole lanetan **Amaia Zipitria**, guztiak ere **Aitor Biainen** zuzendaritzapean. Hots Abesbatzak animatu egin nahi ditu herritarrak ekitaldi berezi honetan parte hartzera.



Oñatiko eskoletako hainbat argazki zahar proiektatuko dira emanaldian zehar



Hondarribiako Musika Sakroaren zikloan parte hartuko du Hots Abesbatzak

Martxoaren 21ean egingo den Hondarribiako 42. Musika Sakroaren Zikloan parte hartuko du Oñatiko Hots Abesbatzak. Programa erdia bakarka eskainiko du Hots-ek, eta beste erdia XATZ Abesbatzarekin elkarlanean, bi abesbatzen arteko topaketa musikal berezi bati bide emanez. Lehen zatian 'Lux et Sapientia' programa eskainiko du Hotsek, eta bigarrenean 'Lumen Mariae', XATZekin batera. Amaia Zipitria piano-jole lanetan ariko da, eta zuzendaritza Aitor Biain-Bidarteren esku egongo da.



'Zauriak' diskoa plazaratu du Lee Kore taldeak

> Hardcore-metal estiloko 7 kanta ditu lan berriak > **Martxoaren 14an** aurkeztuko dute Zumaian, eta **apirilaren 25ean** Oñatin

Zauriak izeneko diskoa plazaratu du Lee Kore taldeak. Martxoaren 3an jarri zuten entzungai ohiko plataforma digitaletan, egun horretan bertan duela 50 urte Gasteizen gertatu zen sarraskia gogoratu eta biktimei aitortza egiteko keinu gisa. Izan ere, gai politiko edo sozialak salatu edo aldarrikatzeko bozgorailu gisa ulertzen dute musika Lee Kore taldekoek, eta modu honetan ekarri nahi izan dute memoriara 1976ko sarraski hura.

Dena den, lan berri honetako kantak pertsonalagoak edo intimoagoak omen dira testuen aldetik, sentimenduek eta bizipen pertsonalek leku nabarmenagoa



▲ Ohiko plataforma digitaletan dago entzungai, dohainik, Lee Kore-ren lan berria. Oñatin, Boga tabernan eskura ditekete CDa.



▲ Bideoklipa
'Gurs'



▲ Bideoklipa
'Zauriak'

dutelako, baina gai sozial eta politikoak ere presente daude *Gurs* edo *Sovetskiy Partizan* kantetan adibidez.

Estilo aldetik, hain berea duten *hardcore* gogorrari eusten diote, metal ukituekin. Hala ere, disko hau aurrekoak baino landuagoa ei da, bai konposizioan eta bai letretan ere. Azaroan grabatu zuten Zumaiaiko *Ozen* estudioan, eta oso gustura daude emaitzarekin.

Azpimarratzekoak dira, era berean, diskoan izan dituzten kolaborazioak. Hala, *Gurs* abestian, *Bellako* taldeko Rubenek jarri du ahotsa, eta diskoari izena ematen dion *Zauriak*-en Paul 'Drop!' eta Ima 'Hoben'-ek ere abesten dute. Bestalde, *Sovetskiy Partizan* kantako letra Alexander 'Ondarru'-rena da.

Bi bideoklip eder ere grabatu dituzte *Gurs* eta *Zauriak* abestienak –Youtuben daude ikusgai–, baina Lee Kore-ren zuzenekoaz gozatzeko martxoaren 14ra arte itxoin beharko dugu, orduantxe aurkeztuko baitute lan berria, Zumaiaiko gaztetxean. Oñatin apirilaren 25ean joko dute, egun horretan ospatuko den 'Antifa' jaialdiaren baitan.

Tartean, Iruñean (martxoak 21, Aitzina taberna), Eibarren (martxoak 28, Amianto Fest) eta Gernikan (apirilak 5, Aberri Eguna) ere joko dute.

Lee Kore taldea 2018an sortu zen eta hauek osatzen dute: Aitor Atxa (ahotsa), Pello Uriarte (gitarra), Aritz Iza (gitarra), Iñigo Blazquez (baxua) eta Beñat Elorza (bateria). Aurretik, *Gorrotorearen hazia erein da* (2019), *Maitasuna eta Askatasuna* (2024) eta *Antifa Hardcore* (2025, Hoben-ekin batera) diskoak plazaratu dituzte. ■

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

Z ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

Manuel Umerez Goribargoitia (1757-1818)

Bizitza eta obria (I)

Testua: Roberto Altuna



2018xan Zeka Oñati-Filatelia eta Numismatika Elkarteak ateratako seillua, Manuel Umerez abade eta idazle oñatiarra hil zaneke ehungarren urteurrena gogoraketako. Egillia: Jabier Erostarbe.

BIZITZAKO GORABEHERAK

- Manuel Umerez Agirre 1757ko agorraren (irailla) 11n jaixo zan, Oñatiko Goribar auzoko Goribargoitti baserrixan.
- Geruago, Agirre abizenaren ordezt, **Goribargoitia** ebali eben bigarren deituratzat.
- *Erretore baten...* liburuan Umerezek kontaitten dosku gaztetan Oñatin ikasi ebela "nire gazte demporan Oñatin Estudioetan nebillela...", baiña zihaztu barik zein ikastetxetan ikasi eben. Hortik aurrera seguru dakigu 1776xan Granadara fan zala eta bertako unibersidadian bost urte pasau zittuela Zuzenbide Zibillaren eta Kanonikuaren Batxillergo Graduak ikasten, eta titulu horreik eskuratuta 1781ian Oñatira itzuli zala.
- 1783an Oñatiko **San Migel parrokiako abade benefiziodun** moduan agerketan da. Eta bertan abade izan zan hiru hamarkada eta erdittan kargu asko izan baeben be, **kabildoko idazkari-kargua**, beste batzuen artian, etzan parroquia izatera ailegau.
- Hirurogei urte zittuela **Oñatin hil zan 1818ko otsaillaren 25ian**, eta orduko Goribar auzoko Santa Kataliñako kanposantu barrixan enterrau euen.

TESTUINGURU HISTORIKUA

- **Garai gogorak** bizittia tokau xakon Manuel Umerezeri: **Frantziako Iraultza** (1789tik aurrera); Frantzia iraultzaillia eta Espaiñiako eta Portugalgo erreinuen arteko **Konbentzio-gerra** (1793-1795); edota **Napoleonen Espaiñiako inbasiñua** (1808-1814).
- Frantzia aldetik etozen **idea eta eragin barri hareik astinddu haundixa** emun otsain orduko euskal gizartiar.



1789ko garagarillaren 14an, Parisko 'Bastida hartzea', Frantziako Iraultzaren hasieratzat hartzen dana.
Jean- Pierre Houel (1735-1813).

- Ondorixoz, ordura arteko egoeria aldatu etzedin, herri- nahiz **eliza-aginttari gehixenak erabagixak hartzeko premiña larrixa ikusi euen.**
- Elizgizonak, esaterako, **kontraerasuari ekin** otsain, batez be, **sermoi eta idazkixak egiñaz**, bai erderaz eta baitta euskeraz be.
- Iragako hiru hamarkaden aldian, XIX. mendiaren hasieran asko ugaltu ziran euskeraz idatzittako liburuak.
- Momentu hartan, **Bizkaixan nahiz Gipuzkuan, hainbat liburu moldau ziran geure hizkuntzan**, danak berihela kaleratu ezpaziran be. Eta gaur egunian oraindiok be horreittako batzuren batzuek argittaratu barik jarraiketan daue.
- J. A. Mogel, P. A. Añibarro, B. Mogel, J. B. Agirre, J. I. Gerriko, J. F. Amundarain, F. A. Otaegi, B. Madariaga, P. P. Astarloa eta Miguel Mariano Plaza oñatiarrak, beste batzuen artian, **berrekin otsain euskeraz idaztiari.**



1808ko mariatzaren 2xa Madrillean. Francisco de Goya (1814).

Datu guztien arabera, elizgizon euskaltzale gehixenak, dotriña-lanak eta filologia-lanak euskeraz lantzen zittuaiñak, alkar ezaguketan euen eta harreman estua eukain euren artian. Umerezek, Oñatiko parrokiako abadia izanda, bertako Unibersidadian ikasten euen euskaltzaliakin tratua izango ebela pentsau leike, horrein artian Juan Jose Mogeekin. Baitta Zarauzko misiolariakin be (Palacios famaia oñatiarra zan, gaiñera) eta gauza bera esan leike Lizarragaren gaiñian be: Oñatin, Elkanon nahiz Markiñan behin baiño gehixagotan misiñuak emundakua zan da. Juan Antonio Mogelek be, ikusi dogun moduan, oso harreman estua eukan misiolariakin, Añibarroekin eta Palaciosekin gehixen bat.

- Testuinguru horretan ifiñi bihar dira '<http://www.oñati.eus> > Oñatiko Udala > Udala> Argitalpenak >Euskara >Klasikoen obrak' **Manuel Umerez Goribargoitiaren euskerazko lanak** be, XIX. mendeko lehen hamarkadan egin ziranak.

Oharra: Interneterako konexiño ona edo banda zabala izan ezian, lanok dakoin pisu haundixa dala-eta, ezin dira ikusi.

Itturria: J. Elortzaren zenbait artikulua eta B. Altunaren 'Euskaldun fededun' liburua, Oxel Uribe-Etxebarriaren gainbegiratuarekin.

AGENDA

HITZALDI/MAHAI-INGURUAK

MARTXOAK 18 / 10:00

'LA SALUD MENTAL HOY'

Hizlaria: Rafael Casas Esteve mediku-psikiatra. Oñatiko Esperientzien Gelaren baitan. [Santa Ana](#).

MARTXOAK 27 / 14:30

'EUSKARA ENPRESA MUNDUAN'

Hizlariak: Jone Urzelai (Onnera Group), Iban Calvo (ULMA) eta EMUN eta Enpresagintza fakultateko ordezkariak. [Enpresagintza fakultatean](#).

LITERATURA

MARTXOAK 11 / 19:00

IPIUIN KONTAKETA HELDUENTZAT

André Roldan kolobiarraren eskutik, 'Ahoz Aho' jaialdiaren baitan. [Zine aretoan](#).

MARTXOAK 18 / 18:30

'HARIAK, JOSTORRATZAK ETA ZAURIAK'

M-8aren harira, Mireia Delgadoren ipuin kontaketa saioa. [Zine aretoan](#).

MARTXOAK 24 / 18:00

KOMIKIA TERTULIXAN. SAIO IREKIA

'Everest. Todo un pueblo en la cumbre' komikiaren egileekin. [Udal liburutegian](#).

MARTXOAK 26 / 18:00

IPIUIN KONTAKETA HAURRENTZAT

Aldo Mendez kubatarraren eskutik, 'Ahoz Aho' jaialdiaren baitan. [Haur liburutegian](#).

MUSIKA

MARTXOAK 6 / 19:30

GANBARA KANTU ESKOLA KANTARI

Ganbara Faktoriako harrobiko taldeen kontzertua. [Santa Ana](#).

MARTXOAK 7 / 22:00

PINPILINPUSSIES + FRUSTRATION

Garage-pop post-punk musika egiten duen bikote euskaldun-katalana, eta Parisko post-punk taldea. [Verdury Hall-Gaztelekuan](#).

MARTXOAK 8 / 18:00

HOTS ABESBATZA

'Emakumeek Idatzia' ekimenaren baitan, kontzertu-omenaldia andereño izandako eta direnei. [Santa Ana](#).

MARTXOAK 14 / 12:00


'ANIMALIEN INAUTERIA'

Aequus Ensemble orkestraren eskutik, familia osoari zuzendutako kontzertu sinfonikoa. [Santa Ana](#).

'KIROL HERRI' banakako txapelketaren finalerdia jokatu da Oñatin

MARTXOAK 15, FORUEN PLAZAN, 12:00

'KIROL HERRI' saioaren banakako txapelketako finalerdi ikusgarria jokatu da martxoaren 15ean Oñatin, –eguraldia ona bada Foruen plazan, bestela, berdura plazan–. ETBk zuzenean emango du. Martxoaren 28an jokatu den final handirako azken txartelen bila ariko dira nor baino nor gehiago: Aizkoran (gizonezkoak) **Julen Alberdi Txikia IV**, **Hodei Ezpeleta Bihurri**, **Eneko Otaño**, **Arkaitz Etxebeste**, **Mikel Larrañaga** eta **Oier Kañamares**. Emakumezkoetan, **Uxue Ansorregi** eta **Malen Barrenetxea**. Harri-jasotzen berriz, **Jon Goenatxo** eta **Xabier Aranburu Guzta** gizonezkoetan, eta **Malen Morandeira**, **Ane Antxutegi** eta **Sara Jimenez de Aberasturi** emakumezkoetan. Ikusgarria benetan!



'Hiru Handiak' taldearen kontzertua

MARTXOAK 14, ANTIXENA GAZTETXEAN, 19:00

Burrunda Faktoriak antolatuta, *Hiru Handiak* hirukotearen musika zuzenean entzuteko aukera izango dugu martxoaren 14an. 2019an sortutako talde honek bere bigarren diskoa ('Hamaika arrazoi') plazaratu zuen iaz. Mikel Fernandez (ahotsa), Arkaitz Sasian (gitarra) eta Jon Ander Arzuagak (bateria) osatzen dute taldea, eta rock gogor eta post-hardcore estiloa lantzen dute, soinu gordin eta bortitzekin, eta kritika sozialetik nahiz minetik idatzitako testu zuzenekin. *Naizpresidente* taldeak osatuko du kartela.



'52 hertz' Ados Teatroren antzezlan berria

MARTXOAK 22, SANTA ANA, 19:00

Benetako bakardade-testigantzetatik abiatuta sortutako antzezlan da. Izenburuak 52 hertzeko frekuentzian abesten duen *Whalien 52* edo 'Balea Barkartia' bezala ezagutzen den zetazeoari egiten dio erreferentzia, eta hura hartzen du gizarte-isolamenduaren sinbolo gisa. Ez da lekukotza-lan hutsa; doinu poetiko bat eskaintzen du, gaiaren latza gorabehera, esperantza dakarrena. Goi mailako antzezle taldea ikusiko dugu oholtzan: Ainhoa Aierbe, Joseba Apaolaza, Martxelo Rubio, Dorleta Urretabizkaia eta Amaia Irazabal.



MARTXOAK 14 / 19:30

SUHAR ABESBATZA

Esteban Urzelai zuzentzen duen koruaren kontzertua. [Bidaurretan](#).

MARTXOAK 15 / 13:00

'EMOZIO TXIKIAK'

Oñatiko musika bandaren kontzertua. [Zubikoa pilotalekuan](#).

MARTXOAK 20 / 22:00

KE LEPO ETA FELIX BUFF + PUNTU TAKOMA

Musika elektronikoa eta rock alternatibo/*grunge* estiloak. [Verdury Hall-Gaztelekuan](#).

MARTXOAK 22 / 12:30

BELHARRA

Donostia eta Hendaia aldeko *Bluegrass* taldea. [Verdury Hall-Gaztelekuan](#).

MARTXOAK 26 / 19:30

OÑATI ETA IBAIERTZ ABESBATZAK



POTX eta LOTX 'Lagunekin topa!'

MARTXOAK 28 / 17:00 eta 19:00

Euskal Herriko hainbat herri eta hiriburu bisitatu ostean, Potx eta Lotx pailazoez etxean taularatuko dute beraien azken lana 'Lagunekin topa!'. Bi pase eskainiko dituzte (4€). **Santa Anan.**



Debagoieneko DANTZARI EGUNA

MARTXOAK 28 / 12:00

Antzuolari erreleboa hartuta, aurten Oñati ospatuko da helduen Debagoieneko Dantzari Eguna. Goizeko 11:30etan kalejira egingo dute, eta 12:00etatik aurrera alardea. **Foruen plazan.**

Oñati Abesbatzaren 60. urteurrenaren baitan. **Agustinoen elizan.**

TAILERRAK

MARTXOAK 21 / 10:00-14:00

FAMILIA KONSTELAZIOAK

'Artezen Hezten / Creciendo con Arte' tadeak antolatuta. M^a Luisa de Dios adituak gidatuta. Erreserbatu plaza: 628212839. **Eltzian.**

ZINEA

MARTXOAK 25 / 18:30

LABURBIRA

Euskarazko film laburren zirkuitu ibiltaria. 7 laburmetrai ikusgai. **Zine aretoan.**

ZINEA

Zine-kluba: Osteguna (19:30)

Nagusia: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 / 22:00) eta Igandea (19:30)

Gaztetxoak: Larunbata eta Igandea (17:00)

Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

MARTXOAK 5 - 9

ZINE KLUBA:

LOS TARTAS DEL PRESIDENTE (VOSE)

NAGUSIAK:

LOS PECADORES (*)

GAZTETXOAK:

NINJA LAUKIDUNA.

SARRERA



(*) Oscar sarietarako 16 izendapen

MARTXOAK 19 - 23

ZINE KLUBA:

-

NAGUSIAK:

TORRENTE

PRESIDENTE

GAZTETXOAK:

TAFITI ETA BERE

LAGUNAK



MARTXOAK 12 - 16

ZINE KLUBA:

EL AGENTE

SECRETO (VOSE)

NAGUSIAK:

MARTY SUPREME (*)

GAZTETXOAK:

CHIRP, HONEY HILL-

SEKO IKERTZAILE



(*) Oscar sarietarako 9 izendapen

MARTXOAK 26 - 30

ZINE KLUBA:

LA SOMBRA DE MI

PADRE (VOSE)

NAGUSIAK:

BALANDRAU,

VIENTO SALVAJE (*)

GAZTETXOAK:

HOOPERS



(*) Benetako gertakarietan oinarritua

FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 / ☎ 943 78 21 16

Martxoak 1, 9, 10, 18, 27, 28 eta 29.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 / ☎ 943 78 01 22

Martxoak 2, 3, 11, 12, 19, 20, 21, 22, 30 eta 31. Apirilak 7.

GARATE

Kale Barria 42 / ☎ 943 78 05 58

Martxoak 4, 5, 13, 14, 15, 23 eta 24. Apirilak 1, 2, 3, 4, 5, 6, 8 eta 9.

ULDAIN

Kale Barria 6 / ☎ 943 78 11 28

Martxoak 6, 7, 8, 16, 17, 25 eta 26.

ODOL ATERALDIA

MARTXOAK 18 (*) / 16:30-20:30

MU-ko Enpresagintza fakultatean.

Aurrez, <https://gotatanta.eus>

atarian har daiteke odola emateko txanda. Bestela, egunean bertan

943007884 zenbakira deituta.

(*) San Josetako zubia dela eta,

odol ateraldia ASTEAZKENEAN

egingo da, salbuespen gisa.

MERKATU TXIKIA

GARAJE BILA Alokairuan hartzeko

edo erosteko garajea nahi nuke, Kale Zarra inguruan. 688 663 258.

LANA Aste barruan zehar edozein

arlotan lan egiteko prest dagoen mutila. Gidatzeko baimena eta kotxea ditut. Deitu: 604 144 732

ALOKATZEKO ETXE BILA 5

laguneko familiak (bikotea + 3 seme-alaba nerabe) alokairuan hartzeko etxebizitza behar du. Lan kontratu egonkorra daukate eta baita erreferentziak ere. 632928096

ALOKAIRURAKO ETXE BILA

Bikote arduratsua etxe bila. Lan egonkordun bikote lasaia eta arduratsua gara. Ez-erretzaileak eta erreferentziadunak. 602 803 590

MERKATU TXIKIA

ataleko iragarkiak dohainik dira.

kontzejupetik@onati.eus

943 78 20 72



Naturatik datorren berrikuntza.